Eraikinak 30 bezeroentzako logelak eskaintzen ditu, 3 solairutan banatuta dago (beheko solairua, lehenengo solairua eta bigarren solairua) solairu bakoitzeko 7 logela daudelarik eta 4 m-ko altuera dutelarik, horrez gain, gela-teknikoan eta teiltuan instalazio termosolarra eta fotovoltaikoa osatzen duten elementuak kokatzen dira. Kanpoaldean bezeroentzako 8 aparkaleku daude, horietako 2 pertsona elbarrituentzako erreserbatuta daudelarik eta lauk ibilgailu elektrikoa kargatu ahal izateko karga-gunea dutelarik (ikus 4.DOKUMENTUA-PLANOAK, IE-02tik IE-05era).

Ostatuaren ikuspegi orokor bat emateko DIALux evo programarekin egindako eraikinaren kanpoaldeko 3D simulazioen hainbat irudi ageri dira (5.etik 11. irudiraino), egunez eta gauzez.



4.Irudia. Ostatuko errotuluak.






5.Irudia. Ostatuaren 3D simulazioa egunez.



6.Irudia. Ostatuaren 3D simulazioa gauz (aurrekaldea).



7.Irudia. Ostatuaren 3D simulazioa gauzez (terrazak).



8.Irudia. Ostatuaren 3D simulazioa gauzez (terraza).



9.Irudia. Ostatuaren 3D simulazioa gauzez (ezkerraldea).



10.Irudia. Ostatuaren 3D simulazioa gauzez (atzekaldea).





11.Irudia. Ostatuaren 3D simulazioa gauz (aparkalekua).

Eraikina osatzen duten eremuen azalerak hurrengo taulan definitzen dira. Hala ere, planoen dokumentuko IE-02, IE-03, IE-04 eta IE-05 planoetan ere solairu bakoitzeko azalerak ikus daitezke.

1.Taula. Ostatua osatzen duten eremuen azalerak.

GUNE ETA LOKALAK		KOPURUA	AZALERA (m <sup>2</sup> )	AZALERA TOTALA (m <sup>2</sup> )
KANPOALDEA	Terraza	1	156,47	156,47
	Aparkalekua	1	333,56	333,56
BEHEKO SOLAIRUA	Harrera - gela	1	239,67	239,67
	Gela teknikoa	1	8,51	8,51
	Komunak	1	14,56	14,56
	Komunak 1	1	2,78	2,78
	Komunak 2	1	3,19	3,19
	Elbarrituen komuna 1	1	3,24	3,24
	Elbarrituen komuna 2	1	3,09	3,09
	Jangela	1	89,01	89,01
	Sukaldea	1	18,58	18,58

GUNE ETA LOKALAK		KOPURUA	AZALERA (m <sup>2</sup> )	AZALERA TOTALA (m <sup>2</sup> )
<b>1 ETA 2. SOLAIRUAK</b>	Hall1/Hall2	2	201,13	402,26
	Logela 101/Logela 201	2	11,98	23,96
	Komuna log. 101/Komuna log. 201	2	6,57	13,14
	Logela 102/Logela 202	2	13,88	27,76
	Komuna log. 102/Komuna log. 202	2	4,55	9,1
	Logela 103/Logela 203	2	16,21	32,42
	Komuna log. 103/Komuna log. 203	2	4,62	9,24
	Logela 104/Logela 204	2	15,71	31,42
	Komuna log. 104/Komuna log. 204	2	4,06	8,12
	Logela 105/Logela 205	2	15,39	30,78
	Komuna log. 105/Komuna log. 205	2	4,22	8,44
	Logela 106/Logela 206	2	16,15	32,3
	Komuna log. 106/Komuna log. 206	2	4,62	9,24
	Logela 107/Logela 207	2	16,59	33,18
	Komuna log. 107/Komuna log. 207	2	4,61	9,22
	Terrazak	2	41,44	82,88
<b>IGOGAILUA</b>		1	7,29	7,29
<b>OSTATUAREN AZALERA TOTALA (m<sup>2</sup>)</b>		<b>1643,41</b>		

Beraz ikus daitekeenez eraikinak 1.643,41 m<sup>2</sup>-ko guztizko azalera dauka eta aparkalekua eta eraikinaren kanpoaldea kontuan hartzen ezpadira ostatuaren eraikinaren azalera **1.153,38 m<sup>2</sup>**-koa da. Jarraian ostatuaren azalera ez-erabilgarriaren eta erabilgarriaren balioak adierazi dira.


2.Taula. Ostatuaren azalera erabilgarri eta ez-erabilgarria.

<b>AZALERA EZ ERABILGARRIA</b> (Korridore, atariak eta komunak)	593,33 m <sup>2</sup>
<b>AZALERA ERABILGARRIA</b>	560 m <sup>2</sup>
<b>AZALERA TOTALA</b>	<b>1153,38 m<sup>2</sup></b>

## 2.7. INSTALAZIO ELEKTRIKOAREN DESKRIBAPENA


### 2.7.1. LOTURA INSTALAZIOA

Ostatuaren kanpoaldean elektrizitatea banatzen duen linea elektrikotik (hargune elektrikotik) hasita eraikinaren barneko zirkuituetaraino dauden elementuek **lotura instalazioa** osatzen dute. 12.irudian ostatuaren lotura instalazioaren eskema orientagarri bat irudikatu da, hala ere, 4.DOKUMENTUA-PLANOAK-eko IE-16 planoan lotura instalazioaren eskema elektriko zehatzago bat ikus daiteke.



12.Irudia. Lotura instalazioaren eskema orientagarria.

Ikus daitekeenez, BKOtik (Babes Koadro Orokorretik) bi instalazio elektriko nagusi ezberdintzen dira, horregatik kontagailuen zentralizazioan bi kontagailu ezberdin daude (instalazioko bana). Instalazio bat ibilgailu elektriko karga-guneei dagokio, honek babes eta agente koadro propioa izango duelarik eta bestetik plaka fotovoltaikoaren instalazioa eta ostatuaren barne instalazioa egongo dira, azken hau koadro eta azpikoadroetan banatzen delarik (ikusi 13.irudia). Koadro, azpikoadro eta kontagailuek ostatuan dituzten kokalekuak IE-06tik IE-15era irudikatutako planoetan ikus daitezke.



13.Irudia. Babes eta aginte koadro nagusien eta azpikoadroen eskema.

Babes eta aginte koadro eta azpikoadroen ezaugarriak eta hauek osatzen dituzten elementuen ezaugarriak (zirkuituak, eroaleak, babesak, instalazio metodoak, etab.) 3.DOKUMENTUA-ERANSKINAK-eko kalkulu-tauletan eta 4.DOKUMENTUA-PLANOAK-eko IE-18tik IE-24.planora diseinatutako eskema haribakarretan ikus daitezke zehaztasunez.

Horrez gain hurrengo azpiataletan ere koadro eta azpikoadroen zenbait zehetasun adierazi dira, beti ere hauek elikatutako zirkuitu guztiak behar bezala etiketatuta egonik hauen identifikazio egokirako.

Zirkuituak ostatuaren zona ezberdinentzako bereizi eta banatu dira (ibilgailu elektrikoaren karga-azpiegitura, kanpoaldea, igogailua, beheko solairua, sukaldea, lehenengo solairua, bigarren solairua eta logelak), modu honetan gainontzeko zirkuituekiko independenteak izango dira.

### 2.7.1.1. HARGUNE ELEKTRIKOA

Hornikuntza elektrikoa I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U. enpresa hornitzaileak emandako Behe Tentsioko 400 V-eko tentsio trifasikoko sare batetik emango da.

### 2.7.1.2. BABES KUTXA OROKORRA (BKO)

BKO eraikuntzako eta ur-behera dauden instalazioen babes-elementuak biltzen dituen elementua da eta ostatuaren atzeko hormaren kanpoaldean 1,5 m-ko altueran kokatuko da (IEMBT 012), kontagailuen zentralizaziotik 5 m-ra. Babes-elementuak aipatutako enpresa hornitzailearen jabetzako fusible trifasikoak dira, ostatuaren kasuan BKOk izan beharreko fusibleen balioa 160 A-koa izango da ostatuko potentzia eskaria kontuan izanik.

Eranskinetako 3.6. atalean babesaren kalibrea kalkulatu da, 3.6.ataleko 53. kalkulu-taulan jasotako datuez baliatuz.

BKO	FUSIBLEAK
160 A	NH- 00-160 A (x3)

### 2.7.1.3. ELIKADURA LINEA OROKORRA (ELO)

ELO (Elikadura Linea Orokorra), BKO eta kontagailuen zentralizazioa lotzen dituen linea da. Ostatuaren kasuan ELOaren eroaleen intalaziorako eta eroaleak multzokatzeko erabiliko den metodoa JTO-BT-19ko 1. taulako B1 modeloa da (isolatutako eroaleak hodiedan, gainazaleko muntaian edo obrako-horman).

ELO kobrezko eroale polobakarrak osatuta dago, tentsio izendatua 0,6/1 kV (RZ1-K) eta sekzioa eta luzera jarraian adierazten dira:

SEKZIOA	LUZERA
3 x 70 mm <sup>2</sup> + 1 x 35 + TT	5 m

#### ➤ Neutroaren sistema (JTO-BT-08):

Existitzen den banaketa-sarearen neutroaren eskemari TT konexioa dagokio, indarreko araudiaren arabera lurrera zuzenean konektatuta.

### 2.7.1.4. KONTAGAILUAK, TARIFA ELEKTRIKOAK ETA FUSIBLE-KUTXAK

Aurrerago aipatu den lotura instalazioaren eskemetan ikus daitekeen moduan (12.irudia eta 4.DOKUMENTUA-PLANOAK-eko IE-16 plano), ostatuko instalazio elektrikoa bi instalazio ezberdinez osatuta dago (ibilgailu elektrikoaren karga-guneak eta ostatuaren barne instalazioa). Instalazio bakoitzak bere kontsumoa irakurtzen duen kontagailu nagusi bat izango du eta tarifa ezberdina izango dute, jabea berdina izanik. Bi kontagailu nagusiak zentralizazioan instalatuko dira, eta ostatuko barne instalazioaren eta instalazio sortailearen neurketa bidirekzionala ahalbidetzen duen konmutadore bat egongo da, plaka fotovoltaiaren bidez sortutako energia elektrikoa kontsumitzeko nahiz saltzeko aukera ematen duelarik eta barne instalazioko kargak saretik nahiz sorgailutik elikatuak izatea ahalbidetzen delarik.



Ibilgailu elektrikoen kontagailuari dagokionez, bi karga-guneetan instalatutako kontagailu sekundarioek irakurritakoa batzeaz eta hauen kontsumoaren neurketaz arduratuko da.

Esan bezala, bi instalazio nagusien kontagailuek tarifa ezberdinak izango dituzte. Barne instalazioaren kontsumoa 15 kW baino altuagoa denez, kontratatuko den tarifa Iberdrolaren “tarifa 3.0” izango da. Kontagailua berezia da, maximetro deituriko kontagailu bat da eta nahiz eta kontratatutako potentzia baino balio altuago bat kontsumitu ez du hornikuntza elektrikoa eteten, zerbitzuaren jarraitutasuna bermatuz. Ibilgailu elektrikoen karga-gunearen kontagailurako, aldiz, Iberdrolak eskaintako “Plan vehiculo eléctrico” tarifa kontratatuko da.

BKOn ostean eta kontagailuen zentralizazioaren aurretik Etengailu-Ebakigailu Nagusi bat (ISG) egongo da, bere kalibrea BKOn fusibleena izango da, 4 x 160 A-12 kA.

Konpainia elektrikoak BKOn ezarritako fusible-babesaren balioa kalkulatu den bezala, kontagailu bakoitzaren aurretik jartzen den segurtasunerako fusible-kutxen balioa kalkulatu da. Eranskinetako 3.6.atalean bi DIen (deribazio indibidualen) babesak kalkulatu dira, ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturarena eta ostatuko barne instalazioarena. Bi DIen erroaleen instalazio metodoa JTO-BT-19ko 1.taulako B1 modelo da eta potentzia eskariak 3.DOKUMENTUA-ERANSKINAK-eko kalkulu-tauletatik atera dira.

DI	FUSIBLEA
IEK GK	DO- 3-80 A (Barretan kokatuta)
BTKO	DO- 3-100 A (Barretan kokatuta)

#### 2.7.1.5. DERIBAZIO INDIBIDUALAK (DI), POTENTZIA KONTROLATZEKO ETENGAILUA (ICP) ETA ETENGAILU AUTOMATIKO NAGUSIA (IGA)

Deribazio indibidualak (DI) kontagailuak eta instalazio pribatuaren babes eta aginte koadro orokorrak lotzen dituzten lineak dira. Ostatuaren kasuan bi DI egongo dira, ibilgailu elektrikoen karga-guneen koadrorra doan linea monofasikoa (230 V) eta ostatuko barne instalaziora doan linea trifasikoa (400/230 V), planoetako IE-18 planoan irudikatutako BKOn eskema haribakarrean ikus daitekeen bezala.

Potentzia kontrolatzeko etengailua (ICP) karga-guneen deribazioaren hasieran jarriko da. Ur-behera konektatutako aldibereko aparatuen potentziak kontratatutako potentzia gainditzen dutenean ICPak instalazioa deskonektatuko du. Ostatuaren barneko instalazioaren kasuan maximetra egongo da kontagailuen zentralizazioan kokaturik, beraz, ez da ICP-rik behar. Hala ere, Etengailu Automatiko Nagusi bat (IGA) egongo da ostatuko barne instalazioa gainkarga edo zirkuitulaburretatik babesteko. ICP nahiz IGAn kalibrea ur-gora jarri diren babesen kalibre bera izango dute, linea berdina babesten

baitute. Horrez gain, barne instalazioa eta plaka fotovoltaikoen instalazioa batzen dituen konmutadorearen aurretik, Maniobra Etengailu Nagusi bat (IGM) egongo da, babeska plaka fotovoltaikoek sortutako energia sarera bidaltzen den kasurako zein ostatuko barne instalazioaren guztizko kontsumoa saretik hartzen den kasurako dimentsionatuta dagoelarik. Kasurik txarrean barneko instalazioaren guztizko kontsumoa saretik hartu behar izatea da, beraz, IGMaren kalibrea barne instalazioaren DI babesten duen Etengailu Automatiko Nagusiaren (IGAREN) berdina izango da, 4 x 100 A-10 kA (ikus behako taula edo IE-18 plano).

Jarraian DI bien ezaugarri nagusiak adierazi dira:

DI	ICP/IGA	EROALEA	LUZERA
Ibilgailu elektrikoen karga-guneko koadrora (IEKGGK-ra) doan linea (230 V)	80 A (regulatua)	2 x 16 mm <sup>2</sup> + TT  (RZ1-K ; 0,6/1 kV)  B1 instalazio-metodoa	12 m (BK0tik)
Behe Tentsioko Koadro Orokorrera (BTKO-ra) doan linea (400/230 V)	Maximetroa  IGA: 100 A	3 x 35 mm <sup>2</sup> + TT  (RZ1-K ; 0,6/1 kV)  B1 instalazio-metodoa	15 m (BK0tik)


## 2.7.2. BARNEKO INSTALAZIOAK

Ostatuko instalazio elektrikoan bi barne instalazio daude, ibilgailu elektrikoen karga-guneak (hartuneak) eta ostatuan kontsumituko diren kargak (koadro eta azpikoadroetan banatuta).

### 2.7.2.1. BT AGINTE ETA BABES KOADROAK


#### 2.7.2.1.1. IBILGAILU ELEKTRIKOEN KARGA-GUNEEN KOADROA (IEKGGK) ETA ELIKATUTAKO KARGAK

IEKGGK bi zirkuitu izango ditu, karga-gune bakoitzeko bana. Zirkuituak elikatzen dituen IEKGGK koadrotik kontagailu sekundarioetara eta hargailuetara doazen lineak lurpekoak izango dira, JTO-BT-19an 1.taulan adierazten den D1 instalazio metodoa, eroalea 2x10mm<sup>2</sup> RZ1-K (AS) Cu eta kanalizazioa DN 25 mm.



14.Irudia. Ibilgailu elektrikoaren karga-guneen babes eta agente koadroa eta elikatutako kargaren eskema.

### 2.7.2.1.2. BT KOADRO OROKORRA (BTKO)



15.Irudia. Behe Tentsioko Koadro Orokorraren eta bere koadro eta azpikoadroen eskema.

15.irudian adierazi den moduan, BTKOk lau koadro (igogailua eta hiru solairuak) eta hamabost azpikoadro elikatzen ditu (sukaldea eta 14 logelak), baita kanpoaldeko argiztapenaren eta EUB instalazioaren zirkuituak ere (ikus 3.DOKUMENTUA-ERANSKINAK-55.kalkulu-taula eta 4.DOKUMENTUA-PLANOAK- IE-18 planoko eskema haribakarra). Koadroa gela-teknikoan kokatuko da planoetan adierazi den moduan (IE-06, IE-10 eta IE-13), jendearen iristetik kanpo. Elementu modularrez osatuta egongo da beharrezko elementuak sartu ahal izateko eta instalazioaren handikuntzarako haina toki duelarik. Arestian adierazi bezala, ostatuaren barne instalazioan dauden zirkuituak babesteko 4x100 A eta 10 kA-ko etengailu automatikoa (IGA) jarriko da.

BTKOren armairuak jarraian adierazitako ezaugarriak izango ditu:

- Erabilera tentsio izendatua 1.000 V.
- Isolamendu tentsio izendatua 750 V.
- Korrante izendatua 160 A.

- Zirkuitulaburreko korrante izendatua 25 kA.
- IP43 babes-maila
- IK08 babes-maila

Igogailuko koadroak motorra eta igogailuko argiztapena elikatzen ditu. Solairu bakoitzeko koadro bana dago eta koadro horiek beste azpikoadro batzuk elikatzen dituzte. Beheko solairuaren kasuan, koadro nagusiak sukaldeko azpikoadroa eta solairuko zona ezberdinetan zehar banatuta dauden indar eta argiztapen zirkuituak elikatzen ditu. Lehenengo eta bigarren solairuetako koadro nagusiek aldiz, logela bakoitzean jarritako azpikoadroak eta solairuan zehar dauden indar eta argiztapen zirkuituak elikatzen dituzte (ikus eranskinetako 56tik 61. kalkulu-tauletara eta IE-19. planotik IE-24. planora).

#### **2.7.2.1.3. BT KOADRO SEKUNDARIO EDO AZPIKOADROAK**

Ostatuan guztira hamabost azpikoadro daude. Beheko solairuan, sukaldean, sukaldeko azpikoadroa dago eta honek bertan dauden hartune eta etxetresnak elikatzen ditu. Gainontzeko azpikoadroak lehenengo eta bigarren solairuetan banatutako logelei dagozkie, logela bakoitzeko azpikoadroak logelako indar eta argiztapen zirkuituak elikatzen dituelarik.

#### **2.7.2.1.4. ARGIZTAPEN ETA INDAR ZIRKUITUAK**

Ostatuko instalazioa elektrikoaren koadroek elikatzen dituzten argiztapen eta indar zirkuituei dagokionez, ostatuko zona bakoitzean instalatutako hartuneak, ohiko argiztapena eta larrialdi argiztapenaren potentziak kontuan izanik, beharrezko zirkuitu ezberdinetan bereizi dira. Argiztapenaren zirkuituen bereizketa edozein zirkuitutan korrante etenen bat egotekotan instalatutako luminaria kopuru totalaren herenari baino ez eragiteko egin da, JTO-BT-28an ezarritakoa betez.

Indar eta argiztapen zirkuituetan 450/750 kV H07Z1-K (AS) Cu eta RZ1-K (AS) Cu motako eroaleak jarriko dira UNE 21123, 4.atala betez eta JTO-BT-19, 1.taulako B1 kanalizazio-metodoa erabiliko da. Ostatuko zirkuituen eroaleen sekzio eta kanalizaziorako hodian diametroak, korrante maximo onargarriaren eta tentsio jauskeraren irizpidea, JTO-BT-19, JTO-BT-20, JTO-BT-21 eta JTO-BT-28 jarraibideetan ezarritakoaren arabera kalkulatu dira eranskinetan adierazitako kalkulu-tauletan ikus daitekeen moduan.

#### **2.7.2.1.5. BABES ELEKTRIKOAK**

Zirkuitu guztiak eroalearen korrante maximo onargarria baino kalibre txikiagoko Etengailu Automatiko Txiki monofasikoez (EA) babestuta egongo dira, halaber multzokatutako Etengailu Automatikoak Etengailu Diferentzialen bidez babestuta egongo dira. Gutxienez babes diferentzial bat instalatutako da bost zirkuituko, JTO-BT-25 jarraibidean ezartzen den moduan.

➤ **Gainkorronte eta zirkuitulaburren aurkako babesak**

Ostatuaren kasuan Etengailu Automatikoak (magnetotermikoak) erabiliko dira eta JTO-BT-22, UNE 20460-4-43 eta UNE 250460-4-473 arauetan adierazitako baldintzak beteko dituzte.

Gainkorronteen aurkako babeserako, etengailu magnetotermikoak baldintzak hauek bete behar ditu:

$$I_b \leq I_n \leq I_z ; I_f \leq 1,45 \cdot I_z$$

Non,

$I_b$ : zirkuituko diseinu korrontea

$I_n$ : babes dispositiboaren korronte izendatua

$I_z$ : babestutako linearen korronte maximo onargarria

$I_f$ : babesaren funtzionamendu efizientea bermatzen duen korrontea

Zirkuitulaburren aurkako babeserako, etengailu magnetotermikoak baldintzak hauek bete behar ditu:

$$1) \text{ Babesaren ebaketa ahalmena} \geq I_{CCmax}$$

$$2) \text{ Etengailu Automatikoaren } (I^2 \cdot t) \leq \text{eroalearen } (K^2 \cdot S^2)$$

\*Zirkuitulaburreko korrontea eroaletik pasatzean sortutako beroketa adiabatikoa dela kontuan hartuz.

$$3) I_m < I_{CCmin}$$

Non,

$I_{CCmax}$ : linearen hasierako zirkuitulabur korronte maximo onargarria

$(I^2 \cdot t)$ : Etengailu Automatikoaren alderik aldeko energia espezifikoa

$(K^2 \cdot S^2)$ : Eroaleak jasandako energia espezifikoa

$K$ : Eroalearen isolamenduari dagokion konstantea

$S$ : Eroalearen sekzioa

$I_m$ : Etengailu Automatikoaren desarra korrontea

$I_{CCmin}$ : linearen amaierako zirkuitulabur korronte minimoa

➤ **Selektibitatea**

Babes elementuak koordinatuta egotea beharrezkoa da instalazioaren punturen batean akatsa ematen bada, akatsetik gertuen dagoen ur-gorako etengailu automatikoak eragin dezan, eragindako etengailuaren ur-goran kokatutako etengailu automatikoaren bidez babestutako gainontzeko instalazioaren zerbitzuaren jarraitasuna bermatuz.

Etengailuen selektibitatea jarraian adierazitakoa izango da:

- Guztizkoa: akatsetik gertuen ur-goran dagoen etengailu automatikoa irekiko da, akats-puntuaren ematen den  $I_{cc}$  maximoaren korrante balio txikiago edo berdinetarako.
- Partziala: akatsetik gertuen ur-goran dagoen etengailu automatikoa irekiko da, balio jakin bat baino balio txikiagoko akats-korranteetarako. Balio berdin edo handiagoetarako etengailu hau eta ur-gora kokatutakoak eragingo lukete.

➤ **Etete-ahalmena**

Instalatutako etengailu magnetotermiko guztiek  $I_{cc}=6$  kA-ko etete-ahalmena dute, Etengailu Automatiko Nagusiak (IGA) eta instalazio fotovoltaikoaren babesak izan ezik,  $I_{cc}=10$  kA.

Zirkuituen ezaugarri guztiak eranskinetan atxikitutako kalkulu-tauletan nahiz instalazio elektrikoaren koadro eta azpokoadroen eskema haribakarretan zehaztasunez adierazi dira.

➤ **Zeharkako kontaktuak**

Instalazioko ibilbide eta aparatu elektriko guztiak, nahigabe tentsiopean dauden masekin edozein kontaktu ematerakoan pentsonengan min fisiologikoa eragitera heldu dezakeen kontaktu-denbora baino gutxiagoko kontaktua egon dadin diseinatuta egongo dira. Hartutako babes-neurriak JTO-BT-24 jarraibidea beteko dute eta UNE 204604-41 arauarekin bat etorriko dira:

- Elikadura etenagatiko babesa (UNE 20572-1).
- Erabili den lur-konexioaren eskema kontuan izan behar da (JTO-BT-08). Ostatuaren kasuan TT (neutroa eta masak lurrera). Ohiko tentsio-muga 50 V-ekoa da, balio efikaza egoera normalean eta korrante alternoan (K.A.). Argiztapen publikoarako eta lokal heze eta bustietarako tentsioa 24 V-ekoa da.

$$R_a \cdot I_{Dn} \leq U$$

➤ **Zuzeneko kontaktuak**

Instalazioko ibilbide eta aparatu elektriko guztiak atal aktiboak eskuragarri gera ez daitezen diseinatuko dira, mekanismo eta zirkuitu guztiak babestuz eta linea elektrikoen fase aktiboekin egon daitezkeen edozein ustekabeko kontaktuak ekidituz. Hartutako babesneurriak JTO-BT-24 jarraibidea beteko dute eta UNE 204604-41 eta 4-47 arauekin bat etorriko dira:

- Atal aktiboen isolamendu-babesa, hau ezingo da eliminatu suntsitzen ez bada.

Jarraian ostatuko zirkuituetan erabili diren balio ezberdineko babes-elementuak adierazi dira, hala ere, 4.DOKUMENTUA-PLANOAK-eko IE-18tik IE-24ra irudikatutako planoetan ere ikus daitezke, koadro eta azpikoadroen eskema haribakarretan:

3.Taula. BKO-ren babes elementuak

KOADROA	BABESAREN IZENDAPENA	KOPURUA
KONTAGAILUEN ZENTRALIZAZIOA	<b>Etengailu-Ebakigailu Nagusia (ISG)</b>	
	4x160 A - 12 kA - C klasea	1
IEK GK	<b>Etengailu Nagusia (IGA)</b>	
	2x80 A - 6 kA - C klasea	1
	<b>Etengailu Magnetotermikoak</b>	
	2x32 A - 6 kA - C klasea	2
	<b>Etengailu Diferentzialak</b>	
	2x80 A - 30 mA - C klasea	1
SARE/SORGAILU KONMUTADOREAREN AURRETIK	<b>Maniobra Etengailu Nagusia (IGM)</b>	
	4x100 A - 10 kA - C klasea	1

KOADROA	BABESAREN IZENDAPENA	KOPURUA
<b>BTKO</b>	<b>Etengailu Nagusia (ICP)</b>	
	4x100 A - 10 kA- C klasea	1
	<b>Etengailu Magnetotermikoak</b>	
	4x40 A - 6 kA - C klasea	1
	4x25 A - 6 kA - C klasea	2
	4x20 A - 6 kA - C klasea	5
	2x20 A - 6 kA - C klasea	7
	2x16 A - 6 kA - C klasea	38
	2x10 A - 6 kA - C klasea	32
	2x6 A - 6 kA - C klasea	12
	<b>Etengailu Diferentzialak</b>	
	4x40 A - 300 mA- C klasea	1
	4x25 A - 300 mA- C klasea	2
	4x20 A - 300 mA- C klasea	3
	4x20 A - 300 mA- D klasea	1
	4x20 A - 30 mA- C klasea	2
	2x63 A - 30 mA- C klasea	2
	2x40 A - 30 mA- C klasea	6
	2x20 A - 30 mA- C klasea	2
	2x16 A - 30 mA- C klasea	38
	2x10 A - 30 mA- C klasea	15



### 2.7.2.2. LUR-JARTZE SISTEMA

Eraikinaren lur-jartze sistema diseinatzekoan JTO-BT-18 jarraibidean ezarritakoa kontuan hartu da. Lur-jartzea ostatuko gela-teknikoan kokatutako arketa batera heltzen diren lurreko lineek osatzen dute, lur-hartunearen sareak 2 m-ko luzeradun 2 pika dituelarik.

#### ➤ Lur-hartuneak

Lur-hartuneak ostatuko lur-jartze sarearekin konektatzen dira 16 mm<sup>2</sup>-ko sekziodun eroale berde-horiarekin. Aparatuen masa guztiak lurrera konektatu behar dira eta lur-erresistentziak erlazio hau bete behar du:

$$R_T < U_C / I_{\Delta n}$$

Non,

$R_T$  : masen lur-erresistentzia

$U_C$  : kontaktu-tentsio maximo onargarria

$I_{\Delta n}$ : Etengailu diferentzialen korrante diferentzial izendatua (sentikortasuna)

Lur-jartzearen balioa:

$$R_T = 50 \text{ V} / 0,03 \text{ A} = 1.666,67 \Omega$$

$$R_T = 1.666,67 / \text{Segurtasun koef. (4)} = 416,67 \Omega$$

Beraz, lur-jartzearen balioak 416  $\Omega$ -eko balioa ez gainditzea gomendatzen da eguraldiaren araberrako segurtasun-faktore bat hartzeko eta instalatutako babes diferentzialek modu egokian funtziona dezaten.

#### ➤ Lurreko-linea nagusia

Lurreko-linea nagusitik babes-eroaleak edo zuzenean masak lurrarekin konektatzen dituzten eroaleak irtengo dira. Lurreko-linea gela-teknikoan kokatutako arketa batera konektatzen da.

#### ➤ Babes-eroaleak

Instalazioaren masa guztiak lur-hartune berdinerara konektatuta egongo dira.

➤ **Sare ekipotentziala**

BTEEn ezarritakoaren arabera konexio ekipotentzial bat egingo da existitzen diren kanalizazio metalikoen (ur-hotza eta beroa, kalefakzioa, gasa, etab.) eta sistema sanitario metalikoen masen artean, halaber komunitako gainontzeko eroale edo elementu metalikoen artean. Konexioa finkatzen duen eroalea isolatua, 2,5 mm<sup>2</sup> -ko PVCzko eroale isolatua da, 500 V-eko tentsio izendatua dauka eta 9 mm-ko diametrodun hodi isolatu malguaren barruan doa.

Komunetan deribazio kutxa guztiak sare ekipotentziala eta barneko instalazioaren arteko konexioa egiten duena salbu, alikatatuaren azpian ezkutatuta joan daitezke.

### 2.7.3. OSTATUKO KARGAREN AURREIKUSPENA

Azpiko tauletan eraikinean instalatuko diren kargen potentzia, tentsio izendatua eta hornidura tentsioa adierazten dira. Instalazioaren beharrezko potentzia elektrikoa argiztapenaren, makineriaren eta hartuneentzat zuzendutako potentziaren batura izango da.

Ostatuan instalatutako karga guztien ezaugarriak 3.DOKUMENTUA-ERANSKINAK-eko 3.6.azpiataleko kalkulu-tauletan adierazi dira.

➤ **ARGIZTAPENA:**

4.Taula. Ostatuaren argiztapeneko kargak.

KOADROA	ZIRKUITUA	TENTSIO IZENDATUA (V)	HORNIDURA TENTSIOA (MONO/TRI)	POTENTZIA (W)
BKO/BTKO	KANPOALDEKO ARGIZTAPENA 1	230	MONO	849,52
BKO/BTKO	KANPOALDEKO ARGIZTAPENA 2	230	MONO	849,52
BKO/BTKO	KANPOALDEKO ARGIZTAPENA 3	230	MONO	849,52
IK	IGOGAILUEN ARGIZTAPENA	230	MONO	79,80
BSK	ARGIZTAPENA BS1	230	MONO	965,13
BSK	ARGIZTAPENA BS2	230	MONO	965,13
BSK	ARGIZTAPENA BS3	230	MONO	965,13
BSK	ARGIZTAPENA BS4	230	MONO	965,13

KOADROA	ZIRKUITUA	TENTSIO IZENDATUA (V)	HORNIDURA TENTSIOA (MONO/TRI)	POTENTZIA (W)
BSK	LARRIALDI BS1	230	MONO	58,00
BSK	LARRIALDI BS2	230	MONO	58,00
BSK	LARRIALDI BS3	230	MONO	58,00
BSK	LARRIALDI BS4	230	MONO	58,00
LSK	ARGIZTAPENA LS1	230	MONO	955,15
LSK	ARGIZTAPENA LS2	230	MONO	955,15
LSK	ARGIZTAPENA LS3	230	MONO	955,15
LSK	ARGIZTAPENA LS4	230	MONO	955,15
LSK	LARRIALDI LS1	230	MONO	96,32
LSK	LARRIALDI LS2	230	MONO	96,32
LSK	LARRIALDI LS3	230	MONO	96,32
LSK	LARRIALDI LS4	230	MONO	96,32
LSK/LOG. 101	ARGIZT.LOG. 101	230	MONO	102,48
LSK/ LOG. 102	ARGIZT.LOG. 102	230	MONO	102,48
LSK/ LOG. 103	ARGIZT.LOG. 103	230	MONO	102,48
LSK/ LOG. 104	ARGIZT.LOG. 104	230	MONO	102,48
LSK/ LOG. 105	ARGIZT.LOG. 105	230	MONO	102,48
LSK/ LOG. 106	ARGIZT.LOG. 106	230	MONO	102,48
LSK/ LOG. 107	ARGIZT.LOG. 107	230	MONO	102,48
BISK	ARGIZTAPENA LS1	230	MONO	955,15
BISK	ARGIZTAPENA BIS2	230	MONO	955,15
BISK	ARGIZTAPENA BIS3	230	MONO	955,15
BISK	ARGIZTAPENA BIS4	230	MONO	955,15
BISK	LARRIALDI BIS1	230	MONO	96,32
BISK	LARRIALDI BIS2	230	MONO	96,32
BISK	LARRIALDI BIS3	230	MONO	96,32

KOADROA	ZIRKUITUA	TENTSIO IZENDATUA (V)	HORNIDURA TENTSIOA (MONO/TRI)	POTENTZIA (W)
BISK	LARRIALDI BIS4	230	MONO	96,32
BISK/ LOG. 101	ARGIZT.LOG. 201	230	MONO	102,48
BISK/ LOG. 102	ARGIZT.LOG. 202	230	MONO	102,48
BISK/ LOG. 103	ARGIZT.LOG. 203	230	MONO	102,48
BISK/ LOG. 104	ARGIZT.LOG. 204	230	MONO	102,48
BISK/ LOG. 105	ARGIZT.LOG. 205	230	MONO	102,48
BISK/ LOG. 106	ARGIZT.LOG. 206	230	MONO	102,48
BISK/ LOG. 107	ARGIZT.LOG. 207	230	MONO	102,48
<b>P.TOTALA</b>				<b>15.132,64</b>

➤ **INDARRAK:**

5.Taula. Ostatuko indarren kargak.

KOADROA	ZIRKUITUA	TENTSIO IZENDATUA (V)	HORNIDURA TENTSIOA (MONO/TRI)	POTENTZIA (W)
BKO/IEK GK	KARGA-GUNEA 1	230	MONO	7.400,00
BKO/IEK GK	KARGA-GUNEA 2	230	MONO	7.400,00
BKO/BTKO	EUB INSTALAZIOA (SIS.TERMOSOLARRA)	400	TRI	3.400,00
IK	IGOGAILU MOTORRA	400	TRI	2.200,00
BSK	RACK	230	MONO	500,00
BSK	SZ	230	MONO	300,00
BSK	SAZ	230	MONO	300,00
BSK	HARTUNEAK 1 + KE-ERAUZGAILUAK	230	MONO	1.200,00
BSK	HARTUNEAK 2	230	MONO	1.000,00
BSK	HARTUNEAK 3	230	MONO	1.000,00

<b>KOADROA</b>	<b>ZIRKUITUA</b>	<b>TENTSIO IZENDATUA (V)</b>	<b>HORNIDURA TENTSIOA (MONO/TRI)</b>	<b>POTENTZIA (W )</b>
<b>BSK/SAK</b>	LABEA	400	TRI	2.000,00
<b>BSK/SAK</b>	BITROZERAMIKA 1	230	MONO	1.400,00
<b>BSK/SAK</b>	BITRO. KANPAIA 1	230	MONO	800,00
<b>BSK/SAK</b>	BITROZERAMIKA 2	230	MONO	1.400,00
<b>BSK/SAK</b>	BITRO. KANPAIA 2	230	MONO	800,00
<b>BSK/SAK</b>	ONTZI GARBIGAILUA	230	MONO	1.100,00
<b>BSK/SAK</b>	GARBIGAILUA	230	MONO	1.200,00
<b>BSK/SAK</b>	MIKROUHIN-LABEA 1	230	MONO	750,00
<b>BSK/SAK</b>	MIKROUHIN-LABEA 2	230	MONO	750,00
<b>BSK/SAK</b>	HOZKAILUA 1	230	MONO	1.100,00
<b>BSK/SAK</b>	HOZKAILUA 2	230	MONO	1.100,00
<b>BSK/SAK</b>	SUKALDEKO HARTUNEA	230	MONO	500,00
<b>LSK</b>	HARTUNEA LS	230	MONO	800,00
<b>LSK/ LOG.101</b>	HARTUNEA LOG.101	230	MONO	302,48
<b>LSK/ LOG.102</b>	HARTUNEA LOG.102	230	MONO	302,48
<b>LSK/ LOG.103</b>	HARTUNEA LOG.103	230	MONO	302,48
<b>LSK/ LOG.104</b>	HARTUNEA LOG.104	230	MONO	302,48
<b>LSK/ LOG.105</b>	HARTUNEA LOG.105	230	MONO	302,48
<b>LSK/ LOG.106</b>	HARTUNEA LOG.106	230	MONO	302,48
<b>LSK/ LOG.107</b>	HARTUNEA LOG.107	230	MONO	302,48
<b>BISK</b>	HARTUNEA BIS	230	MONO	800,00
<b>BISK/ LOG.201</b>	HARTUNEA LOG.201	230	MONO	302,48
<b>BISK/ LOG.202</b>	HARTUNEA LOG.202	230	MONO	302,48
<b>BISK/ LOG.203</b>	HARTUNEA LOG.203	230	MONO	302,48
<b>BISK/ LOG.204</b>	HARTUNEA LOG.204	230	MONO	302,48
<b>BISK/ LOG.205</b>	HARTUNEA LOG.205	230	MONO	302,48

KOADROA	ZIRKUITUA	TENTSI IZENDATUA (V)	HORNIDURA TENTSIOA (MONO/TRI)	POTENTZIA (W)
BISK/ LOG.206	HARTUNEAK LOG.206	230	MONO	302,48
BISK/ LOG.207	HARTUNEAK LOG.207	230	MONO	302,48
<b>P.TOTALA</b>				<b>43.434,72</b>

➤ **Potentzia Maximo Onargarria**

Instalazioaren hasierako babesaren kalibrea 160 A denez, instalazioaren potentzia maximo onargarria honako hau izango da:

$$P_{MAX} = \sqrt{3} \times V \times I = \sqrt{3} \times 400 \times 160 = 110.851,25 \text{ W}$$

➤ **Instalatutako Potentzia Totala**

Instalatutako potentzia totala argiztapenerako eta indarrerako instalatutako potentziak batuz kalkulatu da:

$$P_{TOT.I.} = 15.132,64 + 43.434,72 = 58.567 \text{ W}$$

➤ **Potentzia Eskari Totala**

Lokalaren zehetasunen arabera eta instalatutako aparatu eta ekipo ezberdinen aldibereko erabileraren aukeraren arabera, beharrezko potentzia totalaren kalkulurako 0,91 aldiberekotasun koefizientea hartuko da.

Aurretik ezarritakoan oinarrituz, Beharrezko Potentzia Totala (Potentzia Eskari Totala) honako hau izango da:

$$P_{TOT.E.} = P_{TOT.I.} \times \text{Aldib. Koef.} = 58.567 \times 0,91 = 53.335 \text{ W}$$

## **2.8. INSTALAZIO ELEKTRIKOAREN KARGAK**

Ostatuaren instalazio elektrikoa diseinatzerakoan lehenik eraikinak dituen karga guztien potentzia zehaztu da (argiztapena, larrialdi-argiztapena, hartuneak, ibilgailu-elektrikoen karga guneak ...). Kargak era egoki batean koadro, azpikoadro eta aldi berean barne-zirkuituetan banatu dira (ikusi 4. DOKUMENTUA-PLANOAK-eko IE-06tik IE-15era).

Tentsio jauskeraren eta korronte maximo onargarriaren irizpideak jarraituz barne-instalazioan erabilitako eroaleen materiala, sekzioak eta instalazio zein isolamendu motak zehaztu dira. Behin eroaleek jasan dezaketen korronte maximoa jakinik, linea bakoitzeko babes elementu egokienak hautatu dira, baita eroaleentzako tutu edo/eta kanalizazio egokienak ere (4. DOKUMENTUA-PLANOAK-eko IE-18tik IE-24ra eta 3. DOKUMENTUA-ERANSKINAK-eko 3.6. azpiataleko kalkulu-tauletan adierazten den bezala).

Hurrengo azpiataletan instalazio elektrikoa osatzen duten barneko eta kanpoko kargen, segurtasun-sistema osagarrien eta energia-iturri osagarrien deskribapen, diseinu eta kalkuluen laburpena adierazi dira.

### **2.8.1. OSTATUAN ELIKATU BEHARREKO BARNEKO KARGAK**

#### **2.8.1.1. ARGIZTAPENA**

Ostatuak dituen barneko instalazio elektrikoen kalkuluekin hasteko, eraikinak izango duen argiztapenaren diseinu eta kalkulua egin da. DiaLux Evo programaren laguntzaz eta AutoCAD-en egindako plano ez baliatuz, eraikinaren 3 dimentsiotako simulazio bat egin da eraikinaren gune ezberdinetan jarri beharreko luminariak kokatuz. Dialux Evo programaren laguntzaz argiztapenaren kalkulua egin dira (3. DOKUMENTUA-ERANSKINAK- 3.1. azpiatalean ikus daitezke), beti ere EKT eta UNE arauetan jasotakoa kontuan izanda.

EKT-ko SUA4 atalean argiztapen ezegokiaren ondorioz sortutako arriskuen aurrean ezarri beharreko segurtasuna adierazten da, pertsonen eta ibilgailuen ohiko erabilerako zonetan (parking eta karga/deskarga zonetan) eta eskilaretan (kanpo zein barruko zonetan) batez ere. Eraikinaren zirkulazio zonen ohiko argiztapenak jarraian aipatutako baldintzak bete behar ditu:

1. Zona bakoitzak lur-mailan neurtutako iluminantzia minimoa emateko gai den argiztapen-instalazio bat izan behar du. 6. taulan adierazten dira argiztapen-maila minimoak:

6.Taula. Argiztapen-maila minimoak.

ZONAK			ARGIZTAPEN MINIMOA (lux)
Kanpoaldea	Pertsonentzako bideratuak	Eskailerak	10
		Gainontzeko zonak	5
	Ibilgailuentzako bideratuak edo mixtoak	-	10
Barnealdea	Pertsonentzako bideratuak	Eskailerak	75
		Gainontzeko zonak	50
	Ibilgailuentzako bideratuak edo mixtoak	-	50
*Uniformetasun betez besteko faktorea % 40koa izango da gutxienez			

2. Argiztapen baxuko "Erabilera publikoko lokalen" lan-eremuetan baliza-argiztapena ezarriko da, aldatzetan baita eskilaren maila guztietan.

Eraikinak izango dituen objektuek egindako itzalak kontuan izanik eta UNE-12464.1 arauak bezeroen erosotasuna bermatzeko ezarritakoa jarraituz, egindako instalazioa egokia dela konprobatu da programa berak emandako kalkuluei erreparaturaz. Horretarako, luminarietako argiztapen egonkor horizontalaren batez bestekoaren ( $E_m$ ) balio minimoak gainditu eta eraikin berria denez eraikuntza kode teknikoaren H3 oinarritzko dokumentuak (EKT-OD H3) ezartzen dituen eremu bakoitzeko efizientzia energetikoaren balio maximoak ( $VEEI$ ) gainditzen ez direla konprobatu da (7.taula). Horrez gain, 8.taulan  $U_o$  (iluminantzia-uniformetasunaren balio minimoa,  $U_o = E_{min}/E_m$ ),  $UGR$  (itsutze-indize bateratua) eta  $R_a$  (argi-iturrien erreproduktzio-kromatikoaren indize orokorra) balioak konprobatu dira.



7.Taula.  $E_m$  eta VEEI-rekiko araututako balioen konprobaketa

GUNE ETA LOKALAK		TAULA (UNE-EN 12464-1)	$E_m$ minimoa (lx)	$E_m$ kalkulatua (lx)	VEEI muga- balioa (W/m <sup>2</sup> /100 lux)	VEEI kalkulatua (W/m <sup>2</sup> /100 lux)
<b>BEHEKO SOLAIRUA</b>	Harrera - gela	5.1.1	100	289	10	2,35
	Gela teknikoa	5.3.2	500	655	5	2,33
	Komunak	5.2.4	200	269	4,5	2,19
	Komunak 1	5.2.4	200	234	10	6,61
	Komunak 2	5.2.4	200	236	10	5,72
	Elbarrituen komuna 1	5.2.4	200	228	10	5,82
	Elbarrituen komuna 2	5.2.4	200	230	10	6,05
	Jangela	5.29.3	--	561	10	1,69
	Sukaldea	5.29.2	500	504	5	4,17
<b>1 ETA 2. SOLAIRUAK</b>	Hall1	5.29.3	--	269	4,5	3,24
	Logela 101	5.2.2	100	272	12	2,88
	Logela 102	5.2.2	100	276	12	1,91
	Logela 103	5.2.2	100	258	12	1,75
	Logela 104	5.2.2	100	259	12	1,8
	Logela 105	5.2.2	100	275	12	1,73
	Logela 106	5.2.2	100	245	12	1,85
	Logela 107	5.2.2	100	254	12	1,73
	Komuna log. 101	5.2.4	200	200	10	3,27
	Komuna log. 102	5.2.4	200	217	10	4,35
	Komuna log. 103	5.2.4	200	216	10	4,31
	Komuna log. 104	5.2.4	200	220	10	4,82
	Komuna log. 105	5.2.4	200	217	10	4,69

GUNE ETA LOKALAK		TAULA (UNE-EN 12464-1)	$E_m$ minimoa (lx)	$E_m$ kalkulatua (lx)	VEEI muga- balioa (W/m <sup>2</sup> /100 lux)	VEEI kalkulatua (W/m <sup>2</sup> /100 lux)
	Komuna log. 106	5.2.4	200	215	10	4,32
	Komuna log. 107	5.2.4	200	215	10	4,34
	Terraza	5.2.2	100 (200)	249	10	6,49
<b>IGOGAILUA</b>		5.1.3	100	187	10	4,19

8.Taula.  $U_0$  eta UGR-rekiko araututako balioen konprobaketa









GUNE ETA LOKALAK		TAULA (UNE-EN 12464-1)	$U_0$	$U_0$ kalkulatua	UGR	UGR kalkulatua	$R_a$	Iturrien $R_a$
<b>BEHEKO SOLAIRUA</b>	Harrera - gela	5.1.1	0,4	0,47	24	10	40	100
	Gela teknikoa	5.3.2	0,6	0,72	19	10	80	100
	Komunak	5.2.4	0,4	0,41	25	15	80	100
	Komunak 1	5.2.4	0,4	0,52	25	10	80	100
	Komunak 2	5.2.4	0,4	0,42	25	10	80	100
	Elbarrituen komuna 1	5.2.4	0,4	0,5	25	10	80	100
	Elbarrituen komuna 2	5.2.4	0,4	0,59	25	10	80	100
	Jangela	5.29.3	--	0,12	--	17,1	80	100
	Sukaldea	5.29.2	0,6	0,61	22	10	80	100
<b>1 ETA 2. SOLAIRUAK</b>	Hall 1	5.29.3	--	0,01	--	24,1	40	100
	Logela 101	5.2.2	--	0,011	22	15,7	80	100
	Logela 102	5.2.2	--	0,01	22	20	80	100
	Logela 103	5.2.2	--	0,056	22	20,9	80	100
	Logela 104	5.2.2	--	0,082	22	21	80	100
	Logela 105	5.2.2	--	0,032	22	21,4	80	100
	Logela 106	5.2.2	--	0,02	22	21,1	80	100









GUNE ETA LOKALAK		TAULA (UNE-EN 12464-1)	$U_0$	$U_0$ kalkulatua	UGR	UGR kalkulatua	$R_a$	Iturrien $R_a$
	Logela 107	5.2.2	--	0,015	22	20,3	80	100
	Komuna log. 101	5.2.4	0,4	0,51	25	10	80	100
	Komuna log. 102	5.2.4	0,4	0,41	25	10	80	100
	Komuna log. 103	5.2.4	0,4	0,46	25	10	80	100
	Komuna log. 104	5.2.4	0,4	0,47	25	10	80	100
	Komuna log. 105	5.2.4	0,4	0,44	25	10	80	100
	Komuna log. 106	5.2.4	0,4	0,42	25	10	80	100
	Komuna log. 107	5.2.4	0,4	0,48	25	10	80	100
	Terraza	5.29.3	--	0,075	--	18	80	100
<b>IGOGAILUA</b>		5.1.3	0,4	0,63	25	10	40	100





Dialux Evo programari esker kalkulaturako datuak UNE arauak eta eraikingintza kode teknikoak ezartzen dituzten baldintzak betetzen dituztela konprobatu da. EKT-ak ezarritakoarekin bat, programan bertan VEEI-ren balioak egokiak izaten jarraitzeko luminarien mantentze-faktorea 0,8-koa izatera behartu da, hau da, giroa garbi mantenduko da eta horrez gain, eremu guztietan argiztapen instalazioek erregulazio eta kontrol-sistema bat izango dute, hots, guneek piztu-amatatze eskuzko sistema bat izango dute eta detekzio-tenporizazio sistema ezarriko da okupazio gutxiko eremuetan (komunetan, eskilaretan, korridoretan...) eta leihoetatik 5 metroetaraino dauden luminarietarako iluminazioa erregulatzeko sistema izango dute. Hala ere, proiektuaren 5. DOKUMENTUA- BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA-n lanpara eta luminarietarako bete beharreko arauak adierazi dira.

Azkenik, azpiatal honetan ostatuaren argikuntza diseinatzerakoan erabilitako luminarien ezaugarri teknikoak eta lanpara mota bakoitzaren argiztapeneko ezaugarriak eta ezaugarri elektrikoak azaldu dira (oinarrizkoenak). Gaintzeko ezaugarriak aipaturako dokumentuan ikus daitezke (3. DOKUMENTUA-ERANSKINAK- 3.1.azpiatala). Lanparek eraikinaren gune ezberdin guztietan izango duten kokapen eta behin betiko banaketa 4. DOKUMENTUA - PLANOAK- IE-06tik IE-09ra AutoCAD-en bidez egindako planoetan plasmatu da.

9.Taula. Ostatuan erabilitako luminarien oinarrizko ezaugarriak.

LUMINARIAREN IZENA	LUMINARIAREN ITXURA	KOKATUTAKO LUMINARIA KOPURUA	LUMINARIEN KOKAPEN-ZONAK	LUMINARIAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK	ARGI-BANAKETA DIAGRAMAK
PHILIPS - BBP623 GC 34x LED -HB/BL A		6	Kanpoaldea (ataria)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtz. eraginkortasuna: %74,43</li> <li>- Fluxua: 1189 lm</li> <li>- Potentzia: 50,9 W</li> <li>- Errendim. luminikoa: 23,4 lm/W</li> <li>- CCT: 3000 K</li> <li>- CRI edo Ra: 100</li> </ul>	
PHILIPS - BGP491 T25 1 x LED 40/840 DTS		20	Aparkalekua	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtz. eraginkortasuna: %99,97</li> <li>- Fluxua: 3999 lm</li> <li>- Potentzia: 37,0 W</li> <li>- Errendim. luminikoa: 108,1 lm/W</li> <li>- CCT: 3000 K</li> <li>- CRI edo Ra: 100</li> </ul>	
PHILIPS - BRP215 1 x LED 23/740 DW3		42	Kanpoaldea (eraikuntzaren inguruan)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtz. eraginkortasuna: %100</li> <li>- Fluxua: 2400 lm</li> <li>- Potentzia: 18,0 W</li> <li>- Errendim. luminikoa: 133,3 lm/W</li> <li>- CCT: 3000 K</li> <li>- CRI edo Ra: 100</li> </ul>	
PHILIPS - CR250B PSD W30L120 IP65 1 x LED 55S/840		8	Sukaldea Gela-teknikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtz. eraginkortasuna: %99,97</li> <li>- Fluxua: 5498 lm</li> <li>- Potentzia: 65,0 W</li> <li>- Errendim. luminikoa: 84,6 lm/W</li> <li>- CCT: 3000 K</li> <li>- CRI edo Ra: 100</li> </ul>	


LUMINARIAREN IZENA	LUMINARIAREN ITXURA	KOKATUTAKO LUMINARIA KOPURUA	LUMINARIEN KOKAPEN-ZONAK	LUMINARIAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK	ARGI-BANAKETA DIAGRAMAK
PHILIPS - DN570B PSE-E 1 x LED 24S/840 C		52	Harrera- mahaia  Komunak  Jangela	- Funtz. eraginkortasuna: %100  - Fluxua: 2600 lm  - Potentzia: 21,5 W  - Errendim. luminikoa: 120,9 lm/W  - CCT: 3000 K  - CRI edo Ra: 100	
PHILIPS - GD611B 1 x LED 12S/827 MB		14	Logelak	- Funtz. eraginkortasuna: %98,01  - Fluxua: 1176 lm  - Potentzia: 10,2 W  - Errendim. luminikoa: 115,3 lm/W  - CCT: 3000 K  - CRI edo Ra: 100	
PHILIPS - LL512X 1x LED31S/850 DA25W		229	Harrera-gela /eskailerak  Jangela  Hall-ak  Logelak  Terrazak	- Funtz. eraginkortasuna: %100  - Fluxua: 2900 lm  - Potentzia: 21,0 W  - Errendim. luminikoa: 138,1 lm/W  - CCT: 3000 K  - CRI edo Ra: 100	
PHILIPS- MBX500C  1 x CDM- T70W/942		29	Logelak (sarrera)  Igogailua (sarrera)  Terrazak	- Funtz. eraginkortasuna: %46,96  - Fluxua: 3099 lm  - Potentzia: 80,0 W  - Errendim. luminikoa: 38,7 lm/W  - CCT: 3000 K  - CRI edo Ra: 100	

LUMINARIAREN IZENA	LUMINARIAREN ITXURA	KOKATUTAKO LUMINARIA KOPURUA	LUMINARIEN KOKAPEN-ZONAK	LUMINARIAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK	ARGI-BANAKETA DIAGRAMAK
PHILIPS – SM400C PSD W60L60 1 x LED 42S/830		18	Harrera-gela Hall-ak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtz. eraginkortasuna: %99,93</li> <li>- Fluxua: 4197 lm</li> <li>- Potentzia: 43,5 W</li> <li>- Errendim. luminikoa: 96,5 lm/W</li> <li>- CCT: 3000 K</li> <li>- CRI edo Ra: 100</li> </ul>	
PHILIPS – WT060C L600 1 x LED 18S/840		4	Errotulua Igogailua	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtz. eraginkortasuna: %99,97</li> <li>- Fluxua: 1799 lm</li> <li>- Potentzia: 19,0 W</li> <li>- Errendim. luminikoa: 94,7 lm/W</li> <li>- CCT: 3000 K</li> <li>- CRI edo Ra: 100</li> </ul>	

### 2.8.1.2. LARRIALDI ARGIZTAPENA

Ostatuan kokatutako larrialdiko argiteriei dagokienez, JTO-BT-28 jarraibidean adierazten den lez, segurtasun argiteria gune bat ebakutzen ari diren pertsonen babesa ahalbidetzen duen larrialdiko argiztapena da, beraz, gune baten ebakuazioan zehar argitasuna egotea ahalbidetzen du. Argi hauek ohiko argikuntzan hutsegite bat gertatzean edo tentsio nominalaren %70 baino tentsio txikiagoa detektatzean jarriko dira funtzionamenduan, ostatuaren kasuan 161 V baino elikatze-tentsio baxuagoa hautematean, ez da zertan guztizko ebaketa gertatu behar. Jarduketa-denborari dagokionez, elikadura falta ematen den unetik hasita 0,5 segundo baino arinago jarriko dira martxan ( $t \leq 0,5$  s ebaketa labur bezala sailkatzen delarik). Horrez gain, argikuntza honen instalazioa finkoa izango da eta energia iturri propioez hornituta egongo da, hau da, kanpoko hornikuntza bere karga egiteko baino ez da erabiliko, ostatuaren larrialdi-argiterien kasuan energia-iturri propioez, bateriez, osatua egongo dira.

Jarraian segurtasun argiteriaren barruan sailka daitezkeen hainbat argiteria mota adierazi dira:



16.Irudia. Segurtasun argiteria motak.

- **Hustuketa argiteria:** Sistema hau lokalak okupatuta daudenean edo egon daitezkeenean ebakuazio medio edo bideen antzematea bermatzen duten larrialdiko argiztapenaren parte da. Ebakuazio bideetan zehar hustuketa argiteriak lurzorua mailan eta oinen oinarrizko ardatzean 1 lux-eko luminantzia eman behar dute gutxienez. Eskuzko erabilera exijitzen duten suteen aurkako ekipoak kokatzen diren gunetan eta argiteriaren distribuzio koadroetan, aldiz, egon behar den luminantzia minimoa 5 lux dira. Luminantzia maximoaren eta minimoaren arteko erlazioa oinen oinarrizko ardatzean 40 baino txikiagoa izango da ( $\frac{E_{max}}{E_{min}} < 40$ ).

Lokal batzuetan argiztapen normalak ez du ebakuazio edo hustutze bideen identifikatzea bermatzen, nahikoa ez delako edo ez dagoelako era jarraian piztuta. Kasu honetan beste argiteria bat erabiltzea hausnartu beharko da aipatutako hustutze bideen identifikaziorako (luminaria iraunkorra edo konbinatua, balizajea, seinaleztapeneko luminariak etab.).

- **Izuaren aurkako argiteria:** Larrialdiko argiztapen hauek edozein izu arrisku ekiditeko eta lokalean daudenei oztopoak eta hustutze bideak identifikatu eta jarraitu ahal izateko argitasuna eskaintzen dutenak dira. Izuaren aurkako argiteriak 0,5 lux-eko luminantzia horizontal minimoa eman behar du kontsideratutako espazio osoan zehar, lurretik 1 metroko altuerara. Luminantzia maximoaren eta minimoaren arteko erlazioa kontsideratutako espazioan, 40 baino txikiagoa izango da ( $\frac{E_{max}}{E_{min}} < 40$ ).

Hustuketa argiteriak zein izuaren aurkako argiteriak ohiko elikapenean hutsegite bat gertatzean funtzionatu beharko dute, gutxienez ordu baten zehar aurreikusitako eta hurrengo taulan jasotako luminantzia emanez.



10.Taula. Larrialdiko argikuntzak bete beharreko helburuak.

HUSTUKETA ARGITERIA		IZUAREN AURKAKO ARGITERIA	
Hustuketa bidearen lux-ak	1.00 lux	Lurrera heltzen diren lux-ak	0.50 lux
Hustuketa bideen uniformetasuna (max/min)	40.00 lux	Lurrera heltzen den uniformetasuna (max/min) 40.0	
Segurtasun puntuetako iluminantzia	Horizontala		

- Arrisku handiko alderdien argiztapena: Larrialdiko argiteria honek argikuntzan hutsegiteren bat egonez gero arriskua suposatuko luketen lekuen argiztapen egokia bermatzen du.

Azkenik, azpiatal honetan ostatuaren larrialdi-argikuntza diseinatzerakoan erabilitako luminariaren ezaugarri teknikoak azaldu dira (oinarrizkoenak). Gainontzeko ezaugarriak 3. DOKUMENTUA-ERANSKINAK-eko 3.2.azpiatalean ikus daitezke. Argiteriek eraikinaren gune ezberdinetan izango duten kokapen eta behin betiko banaketa 4. DOKUMENTUA – PLANOAK- IE-13tik IE-15era AutoCAD-en bidez egindako planoetan plasmatu da.

11.Taula. Ostatuan erabilitako larrialdi argiteriaren oinarrizko ezaugarriak.

LUMINARIAREN IZENA	LUMINARIAREN ITXURA	KOKATUTAKO LUMINARIA KOPURUA	LUMINARIAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK	IGORRITAKO ARGIA
HYDRA C5		115	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtzionamendua: konbinatua</li> <li>- Potentzia: 8,0 W</li> <li>- Autonomia: 1h</li> <li>- Larrialdi lanpara: FL8WDLX</li> <li>- Karga-lekukoaren pilotoa: LED</li> <li>- Babes-maila: IP42 IK04</li> <li>- Bateria mota: NiCd</li> </ul>	



### **2.8.1.3. INDAR ETA DATUAK**

#### **2.8.1.3.1. HARTUNEAK**

Ostatuko gune guztietan, UNE 20315 araua jarraituz, 16 A-ko SCHUKO hartune monofasikoak jarriko dira (2P+T/16A/250V), sukaldean dauden gailuentzako 25 A-ko hartuneak erabiliko dira (2P+T/25A/250V), azkenik, karga-guneetan ibilgailu elektrikoen karga egiteko 32 A-tako hartuneak erabiliko dira. Hartune guztiak 230 V-eko sareko tentsioarekin elikatuko dira, labea izan ezik, karga trifasikoa denez 3P+N+T/25A/380V-eko SCHUKO hartunea jarriko da.

#### **2.8.1.3.2. TELEBISTA ETA INTERNETA**

Proiektu honetan ez da telekomunikazioen atala garatuko, hala ere, gela-teknikoan rack bat egongo da ostatuko telekomunikazio dispositibo guztiak biltzeko.

Ostatu osoan zehar internet konexioa egongo da WiFi bidez eta harreran erabiliko den edo diren ordenagailuentzako 2 SCHUKO + 4 RJ45 hartunea jarriko da. Horrez gain, telebisten seinalearentzako antena bat egongo da eta ibilgailuen karga-guneek ere komunikazio-sistema bat izango dute, ostatuko jabeak hauen kudeaketa egin dezan.

#### **2.8.1.3.3. SARRERAKO ETA LOGELETAKO SARBIDE-KONTROLAK**

Ostatuaren sarreran nahiz logela bakoitzean sarbide-kontrol bat egongo da, RFID txartel personalizatu edo hatz-aztarna irakurketarekin bezeroa logelara sartzen eta irtetzen den bakoitzean kontrolean erregistratuta geratuko da, hauen babesa bermatuz. Sarbide-kontrol guztiak sarera konektatuta egongo dira TCP/IP komunikazioarekin, gailuek bildutako datuen kudeaketa erraztuz.

#### **2.8.1.3.4. SUTEEN AURKAKO ZENTRALA**

Ostatuan zehar argi-detektagailuez gain su-detektagailuak jarriko dira eta hauek gela-teknikoan instalatutako suteen aurkako zentralera (SAZ) konektatuta egongo dira. Horrez gain, ostatu osotik, EKTn ezarritakoa kontuan izanik, su-itxalgailuak jarri dira.

#### **2.8.1.3.5. SEGURTASUN ZENTRALA**

Kamarak, mugimendu-detektoreak, ostatuaren sarreretako segurtasuna etab. gela-teknikoan instalatutako segurtasun zentralaren (SZ) bidez kudeatuko dira.


## 2.8.2. OSTATUAN ELIKATU BEHARREKO KANPOKO KARGAK. IBILGAILU ELEKTRIKOEN KARGA-GUNEA

### 2.8.2.1. IBILGAILU ELEKTRIKO MOTAK

#### ✓ EV: “Electric vehicle” - Ibilgailu elektrikoa.

Ibilgailu mota hauek ez dute errektuntza-motorrik, motor elektriko bat edo biz baliatzen dira. Energia kapazitate handiko baterietan metatzen dute (15-30 kWh) eta hauek sare elektrikora konektatzen den hartune baten bidez kargatzen dira. Balazta-birsortzailea erabiltzen dute baterien autonomia handitzeko, gaur egun 80 – 322 km ingurukoa izanik. Bere funtzionamendua guztiz isila da eta erabileraren ondoriozko isuriak konektatzen den sare elektrikoaren energia-iturriaren arabekoak dira, isuriak nuluak izan daitezkeelarik energia-iturria guztiz berriztagarria bada.

EV-en adibideak: Renault ZOE, Nissan Leaf, KIA Soul EV eta Tesla.



17.Irudia. 2019-2020-ko ibilgailu elektrikoaren (EV) modelo ezberdinen autonomia (Iturria: <https://ecorepost.com/noticias/coches-electricos/autonomia-del-coche-electrico-012019>).

#### ✓ PHEV: “Plug-in Hybrid Electric Vehicle”- Ibilgailu elektriko hibrido konektagarriak.

Ibilgailu mota hauek teknologia hibridoan oinarritutakoak dira zeinen bateria hartune elektriko baten bidez kargatu daiteke, honek ibilgailuaren kontsumo, isuriteen eta autonomiaren arteko oreka handiagoa izatea baimentzen duelarik. Ibilgailu mota hauek baterien kapazitatearen ondoriozko autonomia mugaketen menpe egotea ekiditen dute daramaten errektuntza-motorrari esker. Distantzia laburretan ibilgailu elektriko bat bezala jokatzen du, soilik motor elektrikoaz baliatuz. Distantzia luzeetan aldiz, ohiko ibilgailu hibrido bat bezala jokatzen du, hau da, ibilgailu elektriko bezala funtzionatzen dagoenean azeleragailuak potentzia jakin bat eskatzen hasten denean, motor elektrikoak deskonektatu eta errektuntza-motorra hasiko da martxan.

PVEH-en adibideak: Hyundai IONIQ hibrido konektagarria, Mitsubishi Outlander PHEV eta DS7 Crossback E-Tense.



18.Irudia. Ibilgailu elektriko hibrido konektagarrien (PHEV) modelo ezberdinen autonomia. (Iturria: <https://www.autobild.es/listas/coches-hibridos-electricos-ofrecen-autonomia-modo-emisiones-484531>)


#### ✓ HEV: “Hybrid Electric Vehicle” – Ibilgailu elektriko hibridoak.

Ibilgailu mota hauek ez dira konektagarriak, hauen oinarrizko motorra errektuntza-motorra da (orokorrean gasolina, nahiz eta diesel-motorra duten modeloak egon) eta bateria eta motor elektriko txiki batez baliatzen dira abioan edo azelerazio bortitzetan laguntzeko. Normalean modu guztiz elektrikoan zirkulatu dezakete baina denbora eta distantzia oso laburrean zehar. Ibilgailu hauetan bateria balazta-birsortzaileari esker birkargatzen da, baita motor termikoari esker.

HEV-en adibideak: Toyota C-HR.



19.Irudia. Ibilgailu elektriko hibridoen (HEV) modelo ezberdinen ezaugarriak. (Iturria: <https://www.motor.es/>).



20.Irudia. Ibilgailu elektriko moten osagaiak.

Aipatutako ibilgailu motez gain, FCEV (*Fuel Cell Electric Vehicle* edo errekontza-piladun ibilgailu elektrikoa), MHEV (*Mild-hybrid Electric Vehicle* edo ibilgailu mikrohibrido elektrikoa) eta E-REV (*Extended Range Electric Vehicle* edo autonomia hedatuagodun ibilgailu elektrikoak) ere existitzen dira baina teknologia hauek garapen bidean daudenez eta merkatuan duten prezioa altua denez ez dira kontuan hartu.

### 2.8.2.2. IBILGAILU ELEKTRIKOEN ABANTAILA ETA DESABANTAILAK

12.Taula. Ibilgailu elektrikoaren abantaila eta desabantailak.

ABANTAILAK	DESABANTAILAK
Motor elektrikoak ez du erregai fosilik erretzen → Gas-isurketarik EZ.	Ibilgailu-elektrikoaren autonomia 100-300 km inguru, mugatua.
Seriean fabrikatutako motor elektrikoa barne-errekuntzako motor bat baino trinkoagoa, merkeagoa eta sinpleagoa da.	Karga-denbora altua (karga-guneen eskuragarritasun txikia).
Ez du hozte-zirkuiturik, oliorik, ezta mantentze handirik behar.	Bateria elektrikoek iraungitze-data daukate, denborarekin aldatu egin behar dira.
Ez du ia zaratarik egiten eta bibrazioak hautemanezinak dira.	Ibilgailu elektrikoaren karga beharra ↑↑ = elektrizitate eskaera ↑↑ = elektrizitate sorkuntza ↑↑ = baliabide naturalen kontsumoa
Errendimendu osoz funtzionatzen du T <sup>a</sup> aldaketarik gabe.	Bateriak kargatzeko erabilitako elektrizitatea ikatza bezalako lehengaietatik eratorria → kutsadura


ABANTAILAK	DESABANTAILAK
Motor elektriko batek ez du abiadura-aldagailurik behar (martxa bakarra).	Ibilgailu elektrikoaren hasierako inbertsioa altua
Teorikoki motor elektriko batek 0 rpm-etatik pare maximoa garatu dezake → Abiadura maximoarekin martxan jar daiteke.	
Motor elektrikoaren efizientzia ~ % 90	
Bateriak kargatzeko motor elektriko balazta-birsotzaile bihurtu daiteke.	
Ibilgailuak ere sare elektrikora energia-ekarpena egin dezake ("Vehicle 2 Grid")	
Alde ekonomikotik, ez da autoaren matrikulazio zergarik ordaindu behar eta zirkulazio zergaren % 75a aurrezten da.	

### 2.8.2.3. IBILGAILU ELEKTRIKOEN OSAGAI NAGUSIAK


#### 2.8.2.3.1. KANPOKO KARGA-GUNEA

Kanpoko ohiko karga-gunea edo transformadore bihurtzailea saretik zuzenean elektrizitatea korrante altxatu eta korrante zuzenean bihurtzen duen elementua da, oinarrizko bateria kargatu ahal izateko. Hala ere, korrante zuzeneko nahiz korrante altxatuko karga-guneak existitzen dira. Karga-gune ultra-azkarrak adibidez korrante zuzenekoak dira eta kasu honetan ez da ibilgailuaren barneko kargadorerik behar, bateria zuzenean kargatzen da.

BNEF-ek 2019-an egindako ikerketaren emaitzek dioten moduan mundu mailan iada 630.000 karga-gune publiko instalatu dira (ikus 22.irudia).



21.irudia. Karga-gune mota ezberdinak.




22.Irudia. Mundu mailan instalatutako karga-gune publikoak.

### 2.8.2.3.2. BATERIA

Bateriak EV edo ibilgailu elektrikoaren oinarritzko osagai bat da, horien funtzionamendurako energia elektrikoa metatu eta hornitzeko arduradunak baitira. Ibilgailu elektrikoaren autonomia, abiadura maximoa, karga-denbora edo kostua bezalako ezaugarriak ibilgailuaren diseinu eta fabrikazio prozesuetan garatutako baterien teknologiaren menpe egongo dira. 23.irudian bateriak aukeratzeko kontuan izan beharreko faktoreak adierazi dira.

Korronte zuzeneko motorra duten ibilgailuetan bateria zuzenean motorrera konektatuta doa, korronte alternoko motorra duten ibilgailuetan aldiz, inbertsore bati konektatuta doa. Horrez gain, ibilgailu elektriko batzuek BMS (*Battery Management System* edo Baterien Kudeaketa Sistema) bat izango dute, baterietara heltzen den energia kudeatzeko.

Ibilgailu elektriko eta elektriko-hibridoetan bateriarik erabiliak berun-azidoa, nikel-hidruro metalikoa eta ioi-litioa dira. Azken hau aipatutako hiru materialetatik erabiliena da energia espezifiko altuena, bizi-ziklo kantitate altua eta ingurune-inpaktu baxua duelako. Hurrengo taulan baterien material ezberdinek dituzten ezaugarrien alderaketa ikus daiteke.




23.Irudia. Metaketa sistema aukeratzeko kontuan izan beharreko faktoreak.

13.Taula. Bateria moten arteko alderaketa.

BATERIA MOTA	DESKRIBAPENA	ABANTAILAK	DESABANTAILAK	EZAUGARRIAK
Berun azidoa (Pb-azidoa)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zaharra eta ohiko ibilgailuetan erabilieta izandakoa.</li> <li>6 eta 12 V-ekoak izaten dira.</li> <li>Ibilgailuaren abio funtzioetan, argikuntzan edo oinarri-elektrokoetan erabilia gehienbat.</li> <li>100 km-ko autonomia.</li> <li>Gaur egun motor elektrikoaren energia hornikuntzan duen erabilera gutxiagotu egin da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Kostu baxua.</li> <li>✓ Hotzean erantzun ona.</li> <li>✓ Potentzia altua eman.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Energia-espezifikoa baxua.</li> <li>- Astunak dira.</li> <li>- Beruna toxikoa da.</li> <li>- Birkargatzeko kapazitate motela</li> </ul>	<p><b>Bizi-zikloa:</b> 500-800 bitarteko karga-deskarga zikloetara mugatua.</p> <p><b>Energia dentsitatea:</b> Baxua (35-40 Wh/kg bitartean)</p> <p><b>Efizientzia:</b> %75-90</p> <p><b>Mantenimendua:</b> Mantenimendu periodikoaren beharra.</p> <p><b>Ingurumen-inpaktua:</b> Altua</p>
Nikel-hidruro metalikoa (NiMh)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ibilgailu hibridoaren fabrikatzaileek erabiltzen dutena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Pb-azidoko bateriek baino energia ezpezifikoa handiagoa.</li> <li>✓ Karga arinak onartzen dituzte.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Fidagarritasun baxuagoa du.</li> <li>- Ez ditu deskarga bortitzak jasaten.</li> <li>- Tenperatura eta karga-korronte altuekiko erresistentzia baxuagoa.</li> </ul>	<p><b>Bizi-zikloa:</b> 300-500 bitarteko karga-zikloak, mugatuagoa.</p> <p><b>Energia dentsitatea:</b> 30-80 Wh/kg bitartean.</p> <p><b>Efizientzia:</b> %72-78</p> <p><b>Mantenimendua:</b> Mantenimendu altua.</p> <p><b>Ingurumen-inpaktua:</b> Baxua</p>
Ioi-litioa (LiCoO <sub>2</sub> )	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bateria mota berriena.</li> <li>Nahiz eta tamaina txikiagoa izan energia-dentsitate askoz altuagoa dute.</li> <li>Gaur egun ibilgailu elektrikoentzat dagoen konponbiderik hobeena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Energia-dentsitate altua.</li> <li>✓ Tamaina txikiagoa eta arinagoak.</li> <li>✓ Efizientzia altua.</li> <li>✓ Ez dute memoria efekturik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Produkzio kostu altua.</li> <li>- Hauskortasuna.</li> <li>- Segurtasun zirkuitu baten beharra</li> <li>- Biltegitratze arduratsua.</li> </ul>	<p><b>Bizi-zikloa:</b> 400-1.200 bitarteko karga-deskargak.</p> <p><b>Energia dentsitatea:</b> 100-250 Wh/kg bitartean.</p> <p><b>Efizientzia:</b> %75-90</p> <p><b>Mantenimendua:</b> Ez du behar.</p> <p><b>Ingurumen-inpaktua:</b> Neurritzkoa-Baxua</p>





24.Irudia. Baterien material ezberdinen energia eta potentzia espezifikoak. (Iturria: <https://www.intechopen.com/books/propulsion-systems/overview-of-main-electric-subsystems-of-zero-emission-vehicles>)

### 2.8.2.3.3. BIHURGAILUA

Errekuntza-ibilgailuak bezala ibilgailu elektrikoek ere 12 V-eko bateria bat daramate ibilgailuaren elementu osagarriak energia elektriko horitzeko, beraz, oinarrizko bateriatik datorren tentsioa murrizteko HVDC-LCDC (*“High Voltage Direct Current”* edo tentsio altuko korrante zuzena) – (*“Low Voltage Direct Current”* edo tentsio baxuko korrante zuzena) bihurgailua beharrezkoa da.

### 2.8.2.3.4. INBERTSOREA

Inbertsoreek bateriatik datorren korrante zuzena korrante altxatzen dute, modu horretan ibilgailu elektrikoaren motor elektrikoa elikatzen daiteke.

### 2.8.2.3.5. MOTOR ELEKTRIKOA

Motor elektrikoa baterietan metatutako energia mugimenduan bihurtzeaz arduratzen den elementua da. Sorgailu bezala ere lan egin dezake, balzaketetan edo desazelerazioetan galduko litzatekeen energia berreskuratuz. Errekuntza-motorrekiko dituzten abantaila nabarmenenak pisu baxuagoa, errendimendu altuagoa, pare maximo altuagoa eta abio-momentutik ia konstantea dutela dira. Aipatutako abantailek ibilgailuaren ardatzetara edo zuzenean errubedetara akoplatu ahal izatea ahalbidetzen dute.

Ibilgailu elektriko batek hainbat motatako motorrak izan ditzake:



- Korrante zuzeneko motorra (KZ): Inbertsoreen erabilera ekiditen du korrante altxatzen motorrak (KA) ez bezala eta maneiatzeko erraza da. Bere eraginkortasuna %95-era heltzen da eta eskuilak baztertzen badira mantenua murriztea lortzen da. Bere eragozpenik nagusiena, pisutsua dela da.




- **Motor asinkronoa:** Motor merkeagoa eta fidagarriagoa da, KZ motorrak baino mantenimendu gutxiago behar duelarik. Hala ere, inbertsore bat behar du baterien KZ KA energian bihurtzeko, beraz, beraren kontrola konplexuagoa da. Elikadura-tentsioa 70-120 V artekoa da, errentagarritsuna, motorraren tamaina eta segurtasun elektrikoak direla eta. Bere eraginkortasuna iman iraunkorreko motorrena baino baxuagoa da baina funtzionamendu-abiadura tarte handiagoa dauka. EV edo ibilgailu elektriko gehienek mota honetako motorrak erabiltzen dituzte.
- **Erreluktantzia aldakorra:** Iman iraunkorreko motorrarekin bat PHEV edo ibilgailu elektriko hibrido konektagarrietan erabilieta da. Kontrolaren sinpletasuna, sendotasuna, abiadura altuetan funtzionatzeko aukera eta potentzia konstanteko tarte handia dauka. Aitzitik, motorrik garestiena da, ez baita kantitate handietan fabrikatzen.
- **Iman iraunkorreko motor sinkronoak:** Aipatutako gainontzeko motorrek baino potentzia-dentsitate altuagoa lortzen dute, horregatik tamaina eta pisu txikiagoa dute. Motor honek dituen beste abantaila batzuk %95-eko eraginkortasuna, pare altua, bibrazio eta zarata emisio baxua eta hozketa erraza dituela dira, azken hau errotoreko kobre-galerarik ez izatearen ondorio delarik. Hala ere, bere kostua gainontzekoena baino altuagoa da daramatzen imanengatik eta horrez gain, abiadura altuetan prestazio edo zerbitzuak galtzen ditu fluxu magnetikoa konstantea delako.

### 2.8.2.3.6. TRANSMISIOA

Ibilgailu elektrikoek abiadura bakarreko transmisio-sistema bat daukate (Transmisio aldakor zuzena). Motor elektrikoek abiadura oso baxuetatik hasita pare oso altua sortzeko gai diren geroztik, ez dute hainbat martxa erabili beharrik errekuntza-motorrek bezala. Modu hau gidariarentzat erosoagoa da transmisio automatikoaren funtzionamenduaren antzekoa izanda, baina kasu honetan martxa edo abiadura bakarra izanik. Martxa aldaketarik ez izatean potentzia konstantea lortzen da, gainera kostua eta pisua murrizteak ibilgailuaren autonomia altuagoa izatea dakar.



25.Irudia. Ibilgailu elektriko baten elementuak.



26.Irudia. Ibilgailu elektriko batek dituen elementuak 3 dimentsiotan.

#### 2.8.2.4. IBILGAILU ELEKTRIKOAREN KARGA

Ibilgailu elektrikoentzako karga-gune edo dispositibo ezberdin asko existitzen dira eta hauen arteko ezberdintasuna honako ezaugarrietan oinarritzen da:

- Potentzia, hortaz ematen duten karga-denbora ere (karga motak).
- Kargatzen duen ibilgailuarekin elkarbanatzen duen informazioa (karga moduak).
- Ibilgailu elektrikoan sar daitekeen hartune fisikoa (hartune motak).

Gaur egun ibilgailu elektrikoak kargatzeko hiru era daude:

1. “Battery swaping” edo baterien trukaketa: Batez ere Txinan erabiltzen da, agortutako bateria kargatuta dagoen bategatik aldatzean datza, karga-denbora aurreztuz.
2. Hari-gabeko karga: Bateria indukzio edo resonantzia bidez kargatzean datza.
3. Ohiko karga (kable bidez): Sarera konektatutako karga-guneen bidez kargatzea. Etxean, kalean, gasolindegietan etab. erabilia.

##### 2.8.2.4.1. KARGA MOTAK ETA DENBORAK

Esan bezala gasolindegian erregaia hartu ordez ibilgailu elektrikoa sarera konektatzen da bere bateriak karga daitezela. Karga etxeko garajeen egin daiteke ohiko hartune baten bidez edo potentzia handiagoko hartune baten bidez, azken honekin karga-denbora erdira murrizten delarik, edo karga-gune publikoetan. Beraz, karga-motak hauen abiaduraren

arabera sailkatzen dira, hots, bateria kargatzeko behar duten denboraren arabera, zein eskuragarri dagoen potentziaren arabera izango den.

Ibilgailu elektrikoaren karga mota ezberdinak hauek dira:

- Ohiko karga edo karga geldoa: Karga mota honek etxebizitzan erabiltzen den korrante-maila eta tentsio elektriko-maila berdinak erabiltzen ditu (16 A eta 230 V). Horrek esan nahi du karga-guneari karga-mota honekin ematen zaion gutxi gora beherako potentzia 3,7 kW-ekoa dela. Potentzia-maila honekin bateriaren karga-prozesuak 5-8 ordu irauten du. Karga mota honek beste aldaera bat dauka 400 V eta 16 A-ko korrante alferno trifasikoa erabiltzen duena, 11 kW-eko potentzia ematera heldu daitekeelarik eta 2-3 orduko karga-denborak lortzen direlarik. Karga mota hau optimoa da ibilgailu elektrikoa gauean garaje batean kargatu nahi bada, periodo horretan dagoen energia-eskari baxua dela eta.
- Karga erdi-azkarra: Karga mota honek 32 A eta 230 V erabiltzen ditu, horrek esan nahi du karga-guneari 7,3 kW - 14 kW inguruko potentzia eman ahal zaizkiola. Potentzia-maila honekin baterien karga-prozesuak 1,5 - 4 ordu irauten du. Aurreko karga-motan gertatzen den bezala, 400 V eta 63 A-erainoko korrante alferno trifasikoaz hornitzen bada, 22-43 kW-eko potentziak lortu daitzezke bateria 30 minututan kargatuz. Karga mota hau ere optimoa da ibilgailu elektrikoa gauean garaje batean kargatu nahi bada. Halaber, karga mota hau bide publiko edo erdi-publikoetan dauden karga-guneetan erabiltzea ohikoa litzateke.
- Karga azkarra “elektrolinerak”: Karga mota honek korrante elektriko handiagoa erabiltzen du eta horrez gain energia korrante zuzenean ematen du, 600 V eta 400 A-erainoko korrante zuzena eman dezakeelarik. Beraz, 50 - 240 kW inguruko potentzia-irteera lor daiteke eta modu honetan bateriak % 65 kargatzeko 15 minutu beharko ditu edo potentzia handiekin % 80 kargatzeko 5-30 minutu soilik beharko ditu. Horrez gain, 500 V eta 250 A eta 220 kW-etara heldu daitekeen korrante alfernoaren erabilerarekin % 80ko kapazitatea lortzeko 10 minutuko karga-denbora izatea lor daiteke. Karga mota hau errekuntza-ibilgailu bat kargatzearen ohiturara gehien hurbiltzen dena da. Hala ere, karga azkarra autonomia luzatzeko edo komeni diren kargetarako erabili behar da, eta ez ohiko erabilerarako. Hori maila-elektrikoaren eskakizunak ohiko kargarenak baino handiagoak direlako da. Adibidez, instalazio mota hauen potentzia eskaera 15 etxebizitzentarekin alderatu daiteke. Ondorioz, karga azkarrak existitzen den sare elektrikoaren egokitzea ekar dezake.

Ibilgailu batzuk kargaren urrutiko kontrol edo kudeaketa egiteko aplikazio informatikoak dituzte (adibidez programatu eta abantailak dituen tarifa elektrikoaz aprobetxatzeko).

### 2.8.2.4.2. HARTUNE MOTAK

Ibilgailu elektrikoentzako hartuneak oraindik ez daude mundu-mailan estandarizatuak, horregatik merkatuan hainbat hartune mota bereizten dira ezaugarri eta tamaina ezberdinekin. Jarraian aipatutako hartune mota ezberdinak zerrendatu dira:

- Etxeko Schuko hartunea (CEE 7/4): Hartune hau europako korronteeekin bateragarria da eta aparatu elektrikoak behe tentsioko korronte monofasikora (230 V) konektatzeko erabiltzen da. Etxean aurkitzen diren ohiko hartuneak dira eta bi borna edo polo (fase eta neutroa) eta lurreko borna batez osatuta daude, epe laburrean 16 A-tarainokoko korronteak jasan ditzake, beraz, karga geldoetan edo ohiko kargetan bakarrik erabili daiteke eta ez du barneratutako komunikaziorik.



27.Irudia. Schuko hartunea.

- 1.motako hartunea edo SAE J1772 (IEC 62196-2): Batzutan Yazaki moduan ezagutua, Ipar Aameriketako eta Asiako merkatura moldatuta dago eta ibilgailu elektrikoentzat bideratuta dago. 43 mm-ko diametroa dauka eta bost bornaz osatuta dago, korrontedun bi (fasea eta neutroa), lurra eta beste bi borna osagarri (hurbiltasun detektorea, ibilgailua ezin daiteke mugitu kargatzen dagoen bitartean) eta kontrolekoa (sare komunikazioa karga-gune eta ibilgailuaren artekoa). Gehienez behe tentsio monofasikoan 32 A-tan lan egin dezakete, honek 7,4 kW-etako karga-potentzia maximoa ahalbidetzen duelarik.
  - Hartune mota hau erabiltzen duten ibilgailu elektriko batzuk: Nissan Leaf, Nissan ENV200, Opel Ampera, Mitsubishi Outlander, Mitsubishi iMiev, Peugeot iON, Citroën C-Zero, Renault Kangoo ZE (1.mota), KIA SOUL EV, Ford Focus electric o el Toyota Prius Plug in.



28.Irudia. 1.mota edo SAEJ1772 hartunea.

- 2.motako hartunea edo Mennekes (IEC 62196-2): Hartune alemaniar industrialala da baina gaur egun europar estandarra bezala homologatuta dago. Hartune honek 16 A-ko karga monofasikoak eta 63A-ko 400 V-eko karga trifasikoak egitea ahalbidetzen du, beraz, 3,7 kW- 44 kW arteko potentzietan lan egin dezake. Zazpi borna ditu, hiru fasekoak (karga trifasikoetarako), neutroa, lurra eta karga-gunearen eta ibilgailuaren arteko komunikazioa egiteko bi.
  - Hartune mota hau erabiltzen duten ibilgailu elektriko batzuk: Audi A3 E-tron, BMW i3, i8, Renault Zoe, Tesla Model S, Mercedes S500 plug-in, Porsche Panamera, Renault Kangoo ZE, VW Golf plug-in hybrid, VW E-up eta Volvo V60 plug-in hybrid.



29.Irudia. 2.mota edo Mennekes hartunea.

- 3.motako hartunea edo EV Plug-in Alliance (IEC 62196-2): Elkarte honetan Schneider Electric, Scame eta Legrand bezalako enpresak aurkitzen dira, gaur egun ez dira erabiltzen. Bost edo zazpi borna izan ditzake, korrante monofasikorako (230 V) edo korrante trifasikorako (400 V), lurra eta komunikaziorako borna. 32 A jasan ditzake, karga dezakeen potentzia maximoa 22 kW dira, hau da, karga erdi-azkarretarako.



30.Irudia. 3.mota edo EV Plug-in Alliance hartunea.

- CHAdEMO hartunea (IEC 62196-1, UL2551): Hartune hau garatu zuen elkartean TEPCO (Tokyo Electric Power Company), Mitsubishi, Nissan, Toyota eta Subaru bezalako enpresak daude. Korrante zuzenean karga azkarrak egin ditzake, korrante zuzenean (500 V K.Z.) 50 kW-eko potentzia eta 125 A-ko intentsitatea jasateko diseinatuta dago. Bateriatik sarera energia pasa dezake.
  - Hartune mota hau erabiltzen duten ibilgailu elektriko batzuk: Mitsubishi iMiev, Mitsubishi Outlander, Peugeot iON, Citroën C-Zero, KIA SOUL EV, Nissan Leaf eta Nissan ENV200.



31.Irudia. CHAdEMO hartunea.

- Combo 2 hartunea (IEC-62196-3): European korrante zuzenean kargatzeko hartunea da, hau 2.motako korrante alternoko hartune batez (Mennekes) eta korrante zuzeneko bi bornako hartune batez osatuta dago. Hargune bakar baten bidez ibilgailua 2,3 eta 4. moduetan karga dezake. Korrante alternoan lan egin dezakeen potentzia maximoa 44 kW-ekoa da (63 A eta 400 V) eta 100 kW arte korrante zuzenean, gaur egun korrante zuzenean 55 kW-eko kargak soilik egiten diren arren.
  - Hartune mota hau erabiltzen duten ibilgailu elektriko fabrikatzaile batzuk: Audi, BMW, Porsche, Daimler eta Volkswagen.



32.Irudia. Combo2 hartunea.

14.Taula. Karga-motak, karga-denborak eta dagokien hartune-motak.


	OHIKO KARGA EDO KARGA GELDOA		KARGA ERDI-AZKARRA		KARGA AZKARRA	
	MONOFASIKOA	TRIFASIKOA	MONOFASIKOA	TRIFASIKOA	ZUZENA	ALTERNOA
<b>POTENTZIA ETA INTENSITATE ELEKTRIKOA</b>	$V = 230\text{ V}$ $I = 16\text{ A}$ $P < 3,7\text{ kW}$	$V = 400\text{ V}$ $I = 16\text{ A}$ $P < 11\text{ kW}$	$V = 230\text{ V}$ $I = 32-63\text{ A}$ $P = 7,4 - 14,5\text{ kW}$	$V = 400\text{ V}$ $I = 32-63\text{ A}$ $P = 22 - 43,5\text{ kW}$	$V = 600\text{ V}$ $I < 400\text{ A}$ $P = 240\text{ kW}$	$V = 500\text{ V}$ $I = 250\text{ A}$ $P < 220\text{ kW}$
<b>ESTIMATUTAKO KARGA DENBORA</b>	5,5 ordu	2 ordu	3 ordu (32 A) 1,5 ordu (63 A)	Ordu 1 (32 A) 0,5 ordu (63A)	5-8 minutu	
<b>HARTUNEA</b>	1.mota	2.mota/3.mota	2.mota/3.mota		ChadeMO Combo	
<b>KOKALEKU OPTIMOA</b>	Etxebizitzetan, lan-eremuetan, tren estazioetan edo aeroportuetan		Hiriguneetan, supermerkatuetan, hoteletan, aisian, parking publikoetan		Zerbitzu-estazioetan (elektrolinerak)	
<b>NOIZ ERABILTZEN DA?</b>	Ibilgailu elektrikoa kargatzen utzi hainbat orduz (gau osoa, lan-jornada bat, etab.)		Ibilgailu elektrikoa kargatzen utzi erosketak egin edo aisialdi labur batez.		Ibilgailu elektrikoa kargatzen jartzen da berarengandik urrundu gabe.	

### 2.8.2.4.3. KARGA MODUAK

Karga moduak karga-gunearen eta ibilgailu elektrikoaren arteko komunikazio mailaren arabera dira, (halaber sare elektrikoaren arabera). Horrez gain, karga moduek karga-prozesuaren kontrolarekin zerikusia daukate, programatzeko, bere egoera ikusteko, gelditzeko, berriz hasteko edo sarera elektrizitatea itzultzeko.

IEC 61851-1 arauaren arabera lau karga modu sailka daitezke, esan bezala ibilgailuaren eta karga-gunearen arteko konexio eta komunikazioaren arabera:






33.Irudia. Ibilgailu elektrikoaren karga-modu ezberdinak.

## 2.8.2.5. AUKERATUTAKO IBILGAILU ELEKTRIKOEN KARGA-GUNEEN INSTALAZIOA ETA EZAUGARRIAK

### 2.8.2.5.1. KARGA-GUNEEN INSTALAZIOAREN EZAUGARRIAK

JTO-BT-52 jarraibidean aipatutakoa kontuan izanik, ostatuan egingo den ibilgailu elektrikoaren instalazioa 34. irudian adierazitako eskema jarraituz egingo da (1a eskema). Instalazioak ostatuaren kontsumoarekiko independentea den kontagailu bat izango du ostatuarekiko independentea den beste tarifa bat ezartzen zaiolarik (2.7.1.4. azpiatalean adierazitakoa), halaber, kontagailu nagusi horrek karga-gune bakoitzak kontsumitutakoa neurtzen duten beste bi kontagailu sekundarioen batura bilduko du. Kontagailu sekundarioek ostatuko jabeak karga-gune bakoitzaren kontsumoa kudeatzea ahalbidetuko dute, hauek ez baitaude konpainia banatzailearen menpe.





34.Irudia. Karga-gune bakoitzarentzako kontagailu bat eta kontagailu nagusia duen instalazioaren 1a) eskema.

Aipatutako 1a) eskemaren araberrako karga-gune kolektibo trifasikoen zirkuituetan instalatutako potentzia jarraian adierazitako taularen balio batekin bat dator.

15.Taula. Karga-guneen zirkuituen instalatutako potentzia.

U izendatua	Zirkuituaren jatorriko babes etengailu automatikoa	Instalatutako potentzia	Zirkuitu bakoitzeko aldebereko karga-guneak
230 V/400 V	16 A	11.085 W	3
	32 A	22.170 W	6
	50 A	34.641 W	9
	63 A	43.647 W	12

Argiztapen estudioan ikus daitekeen bezala, 3. DOKUMENTUA-ERANSKINAK-eko 3.1.azpiatalean, kanpoko aparkalekuan, hots, ibilgailuen karga egiteko prestatutako zonan dagoen argiztapen-maila horizontala 20 lux baino altuagoa da, beraz, kargaren hasieratik amaierara egindako operazio zein maniobretan beharrezko argiztapena bermatzen da.

➤ **KANALIZAZIOAK, EROALEAK ETA BABESAK:**

Karga-guneen hornikuntza kanpoaldetik doanean eroaleen tentsio-esleitua 0,6/1kV-ekoa, eta gutxienez 2,5 mm<sup>2</sup>-ko sekzioko kobrezko eroaleak izango dira, gure kasuan 10 mm<sup>2</sup>-ko sekziokoak izango dira. Karga-gunearen hornikuntza-zirkuituak babes eroale bat eramango du beti eta instalazio orokorrak lur hartunea izango du.

Kanpoko karga-gunea denez, postu edo gune bakoitzak lurrera jartze borne bat izango du eta edozein zirkuitutan jatorritik karga-puntura egongo den tentsio jauskera maximo onargarria ez da % 5 baino altuagoa izango.

Babes dispositibo diferentzialak A klasekoak izango dira eta hondar-korronte diferentzial maximoa 30 mA-koa izango da.

Instalazioaren lurrera jartzea instalazioaren bizi-zikloan zehar lurrera-jartze erresistentzia maximoa instalazioaren metalezko atal eskuragarrietan 24 V baino altuagoak diren kontaktu-tentsiorik ez sortzeko egingo da. Karga-gune bakoitzak lurrera-jartze borne bat izango du, instalazioaren lurrera-jartze zirkuitu orokorrera konektatuta.

Elektrodoak elkartzen dituzten lur-sarearen eroaleak holakoak izan daitezke:

1. Biluziak, kobrezkoak, lur-sarearen parte badira 35 mm<sup>2</sup>-ko sekzio minimoa izango dute eta elikapen eroaleen kanalizazioetatik kanpo joango dira.
2. 450/750 V-eko tentsio izendatua duten eroalez isolatuak, berde-hori koloreko estaldurarekin, kobrezko eroaleekin eta 16 mm<sup>2</sup>-ko sekzio minimoarekin.

Ostatuan erabiliko den babes eroalea, eroale polobakar isolatua izango da, 450/750 V-etako tentsio izendatuarekin, berde-hori koloreko estaldurarekin eta 16 mm<sup>2</sup>-ko sekzio minimoarekin.

Lur-zirkuitu guztien konexioak behin-betiko kontaktua eta korrosioaren aurkako babesa bermatzen duten terminal, grapa, soldadura edo elementu egokiak izango dituzte.

#### **2.8.2.5.2. AUKERATUTAKO KARGA-GUNEAREN EZAUGARRIAK**

2.8.2. azpiatalean zehar azaldutakoa kontuan izanik, ostatuko aparkalekuan kokatuko diren karga-guneek 2. motako edo Mennekes motako hartuneentzako konexioa izatea erabaki da, esan bezala europa mailan estandarizatuta daudenak baitira eta gaur egun Espainian erabiltzen diren ibilgailuek mota horretako hartuneak izaten baitituzte. Beraz, Circontrol fabrikatzaileak eskaintzen duen "Post Evolve Smart" karga-gune bikoitz bi instalatuko dira (ikusi eranskinetako 3.3. azpiatala). Hauek 230 V-etara funtzionatzen dute, karga-gune bakoitzak bi ibilgailu aldi berean kargatzeko aukera ematen du bakoitzak eman dezakeen potentzia maximoa 7,4 kW-ekoa izanik eta interkonexioa bermatzeko 2.motako konektore eta oinarriak dituelarik. Karga-guneak duen komunikazio-sistemari esker (3. karga-modua) bezeroen eta hauen kontsumoaren fakturazioaren kudeaketa egin daiteke, RFID txartelekin

bezeroa karga egin aurretik edo karga egin ostean identifikatu daitekeelarik. Horrez gain, 4. DOKUMENTUA-PLANOAK- IE-06 eta IE-12. planoetan ikus daitekeen bezala, beste ezaugarri batzuen artean, pertsona elbarrituen erabilerretasunerako diseinatuta daude, araudiak ezarri bezala karga-guneak erabilera publikora bideratuta dauden legez, hartune eta konektoreak lurzorurekiko 0,6 m-ko altuera minimo batera egon behar baitira eta izan dezaketen altuera maximoa 1,2 m-koa delarik.



35.Irudia. Circontrol-en eVolve Smart karga-gunea.

#### **2.8.2.6. IBILGAILU ELEKTRIKOEN KARGA-GUNEEN AZPIEGITURENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK**


Horrez gain, karga-guneen instalazioaren prezioa aurrezteko Euskal Herrian “Energiaren Euskal Erakundeak” MOVES laguntza programa eskaintzen du, besteak beste ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegituren ezarpenerako diru laguntzak emanez.

### **2.9. ERAIKUNTZAKO ELIKADURA-SISTEMA/INSTALAZIO OSAGARRI BERRIZTAGARRIAK**

Ostatuaren instalazio elektrikoaren diseinuan energia berriztagarriak sustatzearen helburua betetzeko, elikadura-sistema osagarri bezala eguzki-energia erabiltzea erabaki da. Hasteko eguzki-energia termikoa erabili da etxeko ur-beroaren (EUB) instalaziorako horrez gain, eguzki-energia fotovoltaikoa erabili da ostatuaren kargen energia-hornikuntzaren osagarri bezala (ikusi 4.DOKUMENTUA-PLANOAK-eko IE-09 eta IE-17.planoak).


Mundu-mailan azken urteotan instalatutako energia berriztagarrien edukierak izugarritzko handikuntza izan du, esaterako, 2018-an 171 GW-eko handikuntza izan dute (2017-arekiko %7,9 gehiago) IRENA-k (Internazional Renewable Energy Agency) batutako datuen arabera, jarraian adierazitako grafikoetan ikus daitekeen bezala.

Renewable generation capacity and the energy transition




36.Irudia. Mundu-mailan energia-berriztagarrien eta ez-berriztagarrien instalazioen edukieraren garapena.

Capacity growth




37.Irudia. Mundu-mailan energia-berriztagarrien instalazioen edukieraren handikuntza (GW-etan eta %-tan).

Nazio-mailan zein Euskal Herrian instalatutako energia-berriztagarrien edukierak ere 2018 eta 2019-an gora egin zuen 2017-arekin alderatuz (ikusi 38.irudia). Halaber, nazio-mailan Euskal Herrian ez bezala energia ez-berriztagarrien garapena handiagoa izaten jarritzen du 40 -43.irudietan adierazten den bezala (Iturria: <https://www.ree.es/es/datos/generacion>).




38.Irudia. Nazio-mailan azkenengo urteetan egondako energia-sorkuntza totalaren energia-berriztagarren sorkuntzaren edukiera %-tan.


39. irudian ikus daitekeen bezala, energia-iturri berriztagarren artean eguzki-energiak geroz eta indar handiagoa du. Nazio-mailan eguzki-energia bidezko sorkuntza handiagotu egin da.




39.Irudia. Nazio-mailan eguzki-energia bidezko sorkuntzaren edukiera GWh-tan.




40.Irudia. Nazio-mailan azkenengo urteetan egondako energia-berriztagarrien sorkuntzaren edukiera (GWh-tan).



41.Irudia. Nazio-mailan energia berriztagarrien eta ez-berriztagarrien garapena (%-tan).




42.Irudia. Euskal Herrian azkenengo urteetan egondako energia-berriztagarren sorkuntzaren edukiera (GWh-tan).



43.Irudia. Euskal Herrian energia berriztagarren eta ez-berriztagarren garapena (%-tan).


### 2.9.1. EGUZKI-INSTALAZIO TERMIKO/ INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO BATEAN KONTUAN IZAN BEHARREKO OINARRIZKO FAKTOREAK

- Latitude geografikoa: Eguzkiaren argia Ekuadorrera hurbildu ahala handituz doa eta Poloetara hurbiltzean txikituz.
- Urtaroa: Urtaroaren arabera, Lurrak eguzkiarekiko duen inklinazioa aldatuz doa honen inguruan orbitatzean. Udan izpiak perpendikular erortzen dira eta azalera txikiagoan indar gehiago biltzen dute.
- Eguzki irradiazioa maximora aprobetxatzeko, plaka hegoaldera orientatu behar da (azimut =  $0^\circ$ ).



44.Irudia. Azimut angelua. Orientazio eta inklinazioaren ondoriozko galeren energia portsentia maximoarekiko.

- Galerak bi parametro hauen arabera kalkulatu dira:




45.Irudia. Plaken inklinazioa eta orientazioa.



a) Inklinazio angelua,  $\beta$ : Perpendikularrekiko desbideratze angelua.


b) Azimut angelua,  $\alpha$ : Norabide batek Ipar geografikoarekiko eratzen duen angelua. Instalaturako plaka bat azimut  $0^\circ$ -rekin, zuzenean hegoaldera orientaturako plaka bat litzateke, desbiderapenik gabe.

- Itzalak: Instalazio bat gauzatzeko orduan itzalak sor ditzaketen eraikinak, arbolak edo mendiak kontuan izan behar dira, hauek plaken errendimendua murriztuko luketelako. Eguzki-zelula bat itzalpean geratzen bada korrontea sortzeari utziko dio, ondorioz, seriean konektatuta dituen zeluletatik ere ez da korronterik pasatuko. Plaketan eguzkiak azalera osoan zehar eman behar du oso sentikorrek baitira, horretarako diodo batzuk jartzen dira babes moduan.



46.Irudia. Plaka baten korronte sorreraren eskema.

Ostatuan kokatuko diren eguzki-kaptadore termiko eta fotovoltaikoen itzalen ondoriozko galerak zehazteko “carta solar” izeneko grafiko bidimentsionak erabiltzen dira, hauek lurreko puntu jakin batetik ikusita eguzkiak izango duen eguneko ibilbidea adierazten dute. Ostataua Gernikako Arana auzoan kokatuta dago, 43,3045, -2,6829 koordinatuetan eta urteko garai ezberdinetan puntu horretatik ikusten den eguzkiaren ibilbidea hurrengo irudian ikus daiteke. (Grafikoa “Solar Radiation Monitoring Laboratory” web orriko simulazio programa baten bidez egin da <http://solardat.uoregon.edu/SunChartProgram.php>).



47.Irudia. Eguzkiaren irradiazioa Gernikan, uztailetik abendura bitartean (eguzki-orduak).

### 2.9.1.1. INSTALAZIO TERMOSOLARRA

#### 2.9.1.1.1. EGUZKI-ENERGIA TERMIKOA

Energia berriztagarrien artean eguzki-energia termikoa dago, honek eguzki-energia erabiltzen du gailu kaptatzaile batzuen zehar fluido berotuz. Bere erabilera nagusia eraikin eta igerilekuen klimatizazioa da. Proiektu honetan etxeko-ur beroaren (EUB) instalazioaren berokuntzarako energia honetaz baliatu da.


#### 2.9.1.1.2. EUB INSTALAZIOAREN DISEINUA

Eranskinetako 3.4. atalean, ostatuan erabiliko den ur-beroaren eskaeraren instalazio zentralizatua dimentsionatzeko kalkuluak adierazten dira. Esan bezala ura berotzeko panel termosolarrak erabiliko dira eta urak nahi den tenperatura lortu ezean, galdara edo termo elektrikoa bat erabiliko da sistema osagarri gisa. Instalazioa teilatuan eta gela-teknikoan kokatuko da (ikus 4.DOKUMENTUA-PLANOAK-eko IE-06 eta IE-09).

EUB instalazioan erabilitako elementu garrantzitsuenen ezaugarriak (kaptadoreak, termo elektrikoa eta metagailua) 3. DOKUMENTUA-ERANSKINAK-eko 3.4. azpiatalean ikus daitezke. 16. taulan instalazioan kokatuko diren osagai nagusien oinarritzko ezaugarri teknikoak adierazi dira eta 48.irudian instalazioaren osagai horiek eta beraien arteko loturak ikus daitezke eskema biren bidez.

16.Taula. EUB instalazioan erabilitakoelementu garrantzitsuenen datuak.

ELEMENTUA	MODELOA	TAMAINA/BOLUMENA
<b>Eguzki-kaptadoreak</b>	GreenHeiss - GH Class 20 V	2067 x 1067 mm
<b>Metagailua (2 hodibihurrekin)</b>	DAITSU- INTERSOL2 1000	995 x 2103 mm,1000 L
<b>Galdara edo termo elektrikoa</b>	ELACELL EXCELLENCE 150L	1329 x 486 mm, 150 L



48.Irudia. EUB instalazioaren elementuak.

### 2.9.1.1.3. EGUZKI-KAPTADORE TERMIKOEN DIMENTSIONATZEA

Ur-beroaren instalazio zentralizatuaren diseinua eta erabiliko diren eguzki-panel termikoen dimentsioa kalkulatzeko “Gas Natural” eta “Solarge” enpresetako kalkulu orriak erabili dira eranskinen 3.4.atalean adierazitako kalkuluetan ikus daitekeen bezala.

Egindako kalkuluetan lortutako ur-beroaren kontsumoaren emaitzak eta Eraikuntzako Kode Teknikoan (EKTan) ezarritako zenbait balio hurrengo taulan batu dira:

17.Taula. Ostatuko ur-beroaren kontsumoaren datuak.

ALDAGAIK	BALIOAK
Bezero kop. max.	30 pertsona
Erreferentziako ur-kontsumo-eskaria	35 L/egun · pertsonako
$Q_d$ (Eguneko kontsumo totala)	1050 L/egun
$Q_p$ (Puntako-periodoaren kontsumoa)	525 L/h (% 50)
$Q_T$ (Eraikinaren kontsumo totala)	5,84 L/s
$Q_c$ (Bat-bateko kontsumoa)	1,556 L/s
Ur-beroaren tenperatura ( $T_{ur-beroa}$ )	50 °C
Eguzki ekarpen minimoa	% 30


Egindako kalkuluak kontuan izanik, eguzki-instalazio termikoak izan beharreko osagaiak eta hauen ezaugarriak zehaztu dira, ondoren ezaugarri horiekin kaptadoreen azalera eta ur-beroaren metaketa kalkulatu da. Bi kalkulu orri ezberdin erabili direnez, emaitzak ez dira guztiz berdinak baina oso antzekoak dira. 18.taulan aipatutako instalazioaren osagai nagusien ezaugarriak eta kalkuluetarako erabilitako balio garrantzitzuenak ikus daitezke.

18.Taula. Ostatu eguzki-instalazio termikoaren ezaugarriak.

EGUZKI-INSTALAZIO TERMIKOA		
EZAUGARRIAK	UNITATEA	BALIOA
Kaptadorearen modeloa	GH-CLASS 20V	$P_{max} = 1,57 \text{ kW}$
Kaptadorearen azalera	$\text{m}^2/\text{kaptadore}$	2
Kaptadorearen altuera	m	2,067
Kaptadorearen zabalera	m	1,067
Kaptadorearen lodiera	m	0,1
Inklinazioa ( $\beta$ )	$^\circ$	45
$F_{r \tau_{au}}$ (Faktore optikoa)	----	0,79
$F_{rU}$ (Galera termikoak)	$\text{W}/\text{m}^2 \cdot \text{K}$	3,911
Kaptadorearen errendimendua ( $\text{etha } 0$ )	%	0,85
Orientazioa ( $\alpha$ )	$^\circ$	(Hegoaldea) 0
Latitudea	$^\circ$	43
Eguzki sistemaren konfigurazioa	----	zentralizatua
Galdara osagarriaren errendimendua	%	0,95
Instalazio osagarria	----	elektrikoa
Ur-beroaren metaketa bolumena	L	1000
Metaketa eta kolektorearen arteko erlazioa ( $V/A$ ) *	$\text{L}/\text{m}^2$	50
Urteko eguzki ekarpen minimoa	%	30
*Kaptadoreen azalera totalak $50 > V/A > 180$ baldintza bete behar du. A: kaptadoreen azalaren batuketa ( $\text{m}^2$ ) eta V: Eguzki-metaketa bolumena (L) . (CTE DB HE4)		

Egindako kalkulu araberako (ikus 3.DOKUMENTUA-ERANSKINAK-eko 3.4.atala) instalaziorik egokiena seriean kokatutako 10 kaptadorez osatutakoa izango litzateke. Kaptadoreek metatutako 1000 L -ko ura berotzeko urtean gutxi gorabehera % 60ko eguzki-ekarpena ematen dute (urteko ekarpen minimoaren baldintza betez), ondorioz, gainontzeko energia-eskaria galdara elektrikoaren laguntzaz bete beharko da.

Kalkulu orrietan jasotako datuen araberako, honakoa izango litzateke instalazioaren energia-balantzea:



49.Irudia. Balantze energetikoaren grafikoak.

## 2.9.1.2. PLAKA FOTOVOLTAIKOEN INSTALAZIOA

### 2.9.1.2.1. EGUZKI-ENERGIA FOTOVOLTAIKOA

Energia fotovoltaikoa energia hidroeletrikoaren eta eolikoaren atzetik, hirugarren energia-iturririk garrantzitsuena bihurtu da estatu-mailan (ikusi 38.irudia) zein mundu-mailan (ikusi 37.irudia) instalatutako edukiera kontuan harturik, azken honetan eguzki-energiaren sortze-ahalmena 94 GW handitu zelarik 2018an.

Eguzki-energia fotovoltaikoa jatorri berriztagarria duen elektrizitatea sortzeko energia-iturri bat da, zeinek zelula fotovoltaikoa deritzon gailu erdieroale batek xurgatutako eguzki-erradiatziotik zuzenean elektrizitatea lortzen duen. Panel fotovoltaikoetan eguzki-erradiazioak (argiak) plakan jotzean elektroiak kitzikatu eta hauen zirkulazioa ahalbidetzen da potentzial diferentzia bat sortuz, efektu fotoelektrikoa deritzona. Hots, energia duen argi-partikulak (fotoia) energia elektroeragile (voltaiko) bihurtzen da, eta sistema zirkuitu elektriko batera konektatuta badago korronea zirkulatuko da.

Bi planta fotovoltaiko mota daude, sarera konektatuta daudenak eta ez daudenak. Sarera konektatutakoen artean bi mota bereizten dira:

- Zentral fotovoltaikoak: sortutako energia guztia sarera isurtzen da.
- Autokontsumo sorgailuak: sortutako energiaren parte bat ekoizleak kontsumitzen du eta gainontzekoa sarera isurtzen da. Aldi berean, ekoizleak unitateak energia nahikoa hornitzen ez duenean saretik hartzen du eskaria asetzeko haina.

Sarera konektatutako instalazioen oinarrizko elementuak, panel fotovoltaikoez gain, hauek dira:

- Babes eta neurketa sistemak: Maniobra elektrikorako eta babeserako elementuak eta sarera isuritako energia elektrikoa neurtzeko sistemak dira. Autokontsumorako instalazioen kasuan sistema hauek bi norabidekoak izaten dira, kontsumitutako energia ere neurtu dadin.
- Inbertsoreak: Hauek panelek sortutako korrante zuzen elektrikoa kontsumorako egokia den korrante alferno bihurtzen dute, % 85-% 92 bitarteko efizientzia izanik.
- Transformadoreak: Zentraletan inbertsoreaz gain, hauek BT-an sortutako korrante alfernoa TE-ra handitzen duten transformadoreak erabiltzen dira.

Bestalde, sarera konektatuta ez dauden instalazioek "irla"-n funtzionatzen dute eta urrutiko lekuetan eta nekazal-ustiaketetan aurkitzen dira normalean, argikuntza eskariak asetzeko, telekomunikazioen osagarri bezala erabiltzeko eta ureztatze-sistemak ponpatzeko. Planta hauek bi elementu osagarri behar dituzte funtzionatzeko:

- Bateriak: panelek sortutako energia gordetzeaz arduratzen dira.
- Erreguladoreak: bateriak gainkargetaz babestu eta hauen erabilera ez-eraginkorra aurreikusten dute.

#### **2.9.1.2.2. ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK**

✓ Abantailak:

1. Energia eguzkitik dator, dohainik da eta munduko edozein puntutan eskuragarri dago.
2. Energia mota honi esker energia-iturri ez-berriztagarriekiko dagoen dependentzia murrizten da, erregai fosilak adibidez.
3. Instalazio fotovoltaikoez beraien funtzionamenduan zehar ez dute zaratarik sortzen ezta gas kutsatzailerik emititzen.
4. Kontsumo-puntuetatik hurbil energia elektrikoa sortzea ahalbidetzen du (sorkuntza banatua), modu horretan garraioan zeharreko galerak murrizten dira eta banaketa sarearen eraginkortasuna hobetzen da.
5. Banaketa sarea heltzen ez den urrutiko zonetan energia sor daiteke.
6. Sistema fotovoltaikoak fabrikatzeko erabilitako energia arin berreskuratzen daiteke (1,5-3 urte bitartean).
7. Instalazio mota hauek mantentze minimoa behar dute.

8. Modulu fotovoltaikoak eraikinen arkitekturan integratu daitezke eta bere itxura modularrei esker planta fotovoltaiko erraldoietatik teiltuentzako panel txikiak eraiki daitezke.
9. Aurreko moduluen bizitza erabilgarria 30 urtekoa baino altuagoa izan ohi da.
10. Energia eolikoarekin eta energia fotovoltaikoarekin energia hibridoa sortu daiteke.

✕ Desabantailak:

1. Instalazioen osagaiak kostu altua suposatzen dute, halaber teknologiak aurreratu ahala kostua murrizten da.
2. Modulu fotovoltaikoen errendimendua baxua da baina hau handituz doa teknologia aurreratu ahala.
3. Energia-iturri aldakor bat da eta honen eskuragarritasuna ez dago ziurtatuta. Adibidez egun lainotsuek eskuragarritasuna murrizten dute eta gauean ez dago eskuragarritasunik.
4. Eguzki-erradiazioa eskuragai ez dagoen periodoetan energia erabili ahal izateko bateria edo metatzaile sistemen bidez biltegitatu behar da.

### 2.9.1.2.3. PANEL FOTOVOLTAIKOA: DEFINIZIOA ETA KONTUAN IZAN BEHARREKO EZAUGARRIAK

Esan bezala instalazio sortzaile fotovoltaiko bat eguzki-energiaren erradiazioa energia elektriko erabilgarri bihurtzen duen dispositibo elektriko eta elektronikoen multzo bat da. Sortze-instalazio fotovoltaiko baten osagai nagusia modulu fotovoltaikoa da eta eguzki-erradiazioa korrante zuzeneko energia elektriko bihurtzen duten elektrikoki elkartutako zelula fotovoltaikoz osatuta dago. Zelulak seriean edo paraleloan konektatzen dira tentsio jakin bat sor dezaten, dispositibo hauen serie konexioak potentzial diferentzia handiagoak lortzea ahalbidetzen du (normalean 12-48 V), aldi berean, sarritan sareak paraleloan konektatzen dira gailuak eman dezakeen korrantea handitzeko, tentsio konstantearekin. Sortutako korrante hori korrante zuzena da, beraz, korrante alternoa nahi bada edo tentsioa handiagotu nahi bada inbertsore bat edo/eta potentzia bihurgailu bat gehitu behar zaie. Ostatuaren kasuan korrante zuzen hori 400 V-eko korrante aldenoan bihurtuko da.

Plaka fotovoltaikoen potentzia sailkatzeko "potentzia piko" edo "puntako potentzia" deritzon parametro estandarizatua erabiltzen da (ostatuko instalazioaren plaken kasuan 395 W), hau modulu batek baldintza estandarizatuetan (irradiazioa = 1000 W/m<sup>2</sup>, zelularen tenperatura = 25 °C) eman dezakeen potentzia maximoari dagokio, jasotako argiztapenaren (irradiazioaren) arabera delarik. Halaber, potentzia zelularen tamainarekiko zuzenki proportzionala da, beraz, tamaina bikoitzeko zelulek, efizientzia berdinarekin, potentzia bikoitza emango dute.

Plaka batek tentsio nahiz korrante intentsitate ezberdinetan lan egin dezake zirkuitu elektrikoan kargaren erresistentzia aldatuz edo zelularen inpedantzia aldatuz, zirkuitulaburreko baliotik (zero balioa) zirkuitu irekira (balio oso altuak). Horrez gain, zelulen efizientzia ( $\eta$ ) eguzki-zelula bat zirkuitu elektriko batera konektatuta dagoenean xurga dezakeen energia elektriko bihurtutako eguzki-argiaren potentziaren ehuneko da eta horrela kalkulatzen da:

$$\eta_{max}(\%) = \frac{P_{Pmax}}{I_r \cdot A} \cdot 100 = \frac{V_{Pmax} \cdot I_{Pmax}}{I_r \cdot a \cdot l} \cdot 100$$

Non,

$P_{Pmax}$ : potentzia piko maximoa (W).

$V_{Pmax}$ : tentsio piko maximoa (V).

$I_{Pmax}$ : korrante piko maximoa (A).

$I_r$ : irradiazioa (W/m<sup>2</sup>).

$A$ : panelaren azalera (m<sup>2</sup>).


$a$ : panelaren zabalera (m).

$l$ : panelaren luzera (m).

Zelula hauek siliziozkoak izaten dira korrante elektrikoen altuenak sortzen dituen material fotosentikorra delako. Silizioa prozesatzeko eraren arabera hiru mota nagusi bereizten dira: monokristalinoak, polikristalinoak eta amorfoak.

- Monokristalinoak: Silizio kristal bakarraz osatua. Hauek efizienteenak dira eta produzitzeko garestienak. Bere babeserako estruktura finko batean muntatu behar dira.
- Polikristalinoak: Partikula txiki kristalizatuz osatuta. Hauek ere estruktura finko batean muntatu behar dira. Tenperatura altuetan monokristalinoak baino efizienteagoak dira.
- Amorfoak: Silizioa kristalatu gabe dagoenean. Amorfoak direnez, malguak dira eta ondorioz panel osoa flexiblea izan daiteke. Hauen bereizgarritasuna, beraien potentzia denborarekin txikituz doala da.





50.Irudia. Eguzki-panel monokristalinoa, polikristalinoa eta amorfoa.

Ostatuko instalazio fotovoltaikoan erabiliko diren plaken hautaketan, hainbat faktore eta ezaugarri izan behar dira kontuan, hala nola, zelula-mota, potentzia, korrontea, tentsioa, temperaturarekiko tolerantzia etab. EN 50380 arauak, merkaturatutako modulu fotovoltaiko bakoitzaren ezaugarri-plakan eta fitxa-teknikoan agertu behar diren datuak ezartzen ditu: Potentzia izendatua  $P_n$  (eta potentzia-tolerantzia), tentsio piko maximoa  $V_{Pmax}$ , korronte piko maximoa  $I_{Pmax}$ , zirkuitu irekiko edo hutseko tentsioa  $U_{OC}$  eta zirkuitulaburreko korrontea  $I_{SC}$ .

Zelula-motari edo plakaren materialari dagokionez, ostatua bezalako eraikuntzetan erabilienak monokristalinoak eta polikristalinoak dira. Modulu monokristalinoek %13-%17 bitarteko efizientzia izaten dute eta horregatik ez dute polikristalinoen besteko azalerarik behar, azken hauek, efizientzia txikiagoa baitute, %11-%15 bitartekoa. Moduluen prezioari dagokionez, polikristalinoak merkeagoak dira aipatutako ezaugarriengatik.

Bestalde, moduluen potentzia izendatu altuak izatea hobesten da, modulu handien muntaketa arinagoa delako. Instalazioaren energia-ekoizpena hobea izateko, moduluek  $\pm$  % 5eko potentzia-tolerantzia izatea gomendatzen da, hala ere, badira  $\pm$  % 3ko potentzia-tolerantzia duten moduluak ere. Moduluen tentsio eta korrontek, aukeratutako inbertsorearenera egokitu behar dira, seriean konektatutako modulu jakin batzuen konexioan arazorik suerta ez dadin. Modulu batentzat sistemaren tentsio maximo onargarria altua izatea komeni da, lineetan ahalik eta galera gutxiago izateko. Panelaren temperatura koefizientea ere garrantzitsua da, batez ere teilatuan integratuta doazenean edo aireztapen txarra dutenean, egun eguzkitsu batean 70 °C-ko temperaturara igo baitaiteke moduluen errendimendua murriztuz. 2.9.1.azpiatalean aipatu bezala, itzalek ere moduluen tenperatura igotzea eragin dezakete, itzalpean dagoen eguzki-zelula batek blokeatutako diodo baten jokaera hartzen baitu, beregan tentsio bat sortuz (seriean

konektatuta dituen gainontzeko zelulen batura) eta tentsio hori diodoaren apurketa-tentsioa baino handiagoa denez, moduluaren gainberotzea eragiten du ("hot-spot"). Beraz, zelula baten itzalak instalazioaren errendimenduan zuzeneko eragina dauka, modulu bat osatzen duten eguzki-zelulen arteko serie konexioaren ondorioz eta kate batean dauden moduluen serie-konexioaren ondorioz, eguzki-irradiazio txikiena jasotzen duen eguzki-zelulak kate guztiko korrantea (eta hortaz potentzia) zehazten baitu.

Horrez gain, ekaitza eta txingorrekiko duten erresistentzia ere garrantzitsua da, baita moduluaren pisua ere.

Panelen kanpoko dimentsioa aukeratzeko orduan, nahiz eta modulu handiek euskarrien puntuak eta instalazioaren esfortzuak murrizten lagundu, askotan teilatuaren azalera erabilgarriaren menpekota izaten da, betiere, kontuan izan behar da aireztapenarako moduluen arteko espazio interstiziala (2-3 cm-koa).

#### ➤ KANALIZAZIOAK, EROALEAK ETA BABESAK:

Instalazio fotovoltaikoaren korrante zuzeneko tartean (modulu fotovoltaiko-erreguladore, erreguladore-bateria eta bateria-inbertsore tarteetan), XLPE isolamendua duten 2,5 mm<sup>2</sup>+T 0,6/1 kV TOPSOLAR PV DUAL H1Z2Z2-K (AS) Cu eroaleak erabiliko dira, korrante alternoko tartean aldiz, 6 mm<sup>2</sup>+T 0,6/1 kV RZ1-K (AS) eroaleak erabiliko dira, JTO-BT-19an adierazitako B1 instalazio-metodoa erabiliko delarik (ikusi 3.DOKUMENTUA-ERANSKINAK-eko 3.6.ataleko 62.taula).

Instalazio fotovoltaikoa eta inguruan ibili daitezkeen pertsonen babeserako, elektrokuzioen aurkako babesak eta ginkorranteen aurkako babesak jarri beharko dira.

Elektrokuzioen kasurako, JTO-BT-24a jarraituz, atal aktiboak isolatu eta lurrera konektatuko dira, eta 300 mA - A klaseko diferentziala jarriko da, instalazioaren korrante alternoko aldean.

Gainkorranteen aurkako babesek instalazioaren korrante izendatua baino korrante altuagoak ematen direnean (gainkargen edo zirkuitulaburren ondorioz), instalazioa deskonektatzeko ardura izango dute. Ostatuko instalazio fotovoltaikoaren kasuan, instalazio mota hauetara moldatutako gPV fusibleak erabiliko dira, JTO-BT-22an eta UNE-EN-60269-6an ezarritako babesek izan beharreko ezaugarriak kontuan izanik. UNE arauan, fusiblearen ordu bateko iraupenaren fusio-ezaren intentsitatea ( $I_{NF}$ ) eta fusio intentsitatea ( $I_F$ ) hurrengo formulekin definitzen dira, fusiblearen korrante izendatuaren ( $I_n$ ) arabera:

$$I_{NF} = 1,13 \cdot I_n$$

$$I_F = 1,45 \cdot I_n$$

Fusiblearen korrante izendatua ( $I_n$ ) zehazterakoan, jasan dezakeen tenperatura eta zirkulatzen den hodei nahiz egun-gau zikloen ondoriozko korrante-aldaketak aintzat hartu behar dira, horregatik hurrengo formula erabiltzen da moduluaren zirkuitulabur korrantea ( $I_{SC,STC}$ ) kontuan izanik:

$$I_n \geq 1,4 \cdot I_{SC,STC}$$

Horrez gain, UNE-EN-60269-6 arauan fusibleen ebaketa-ahalmen minimoa 10 kA-tan ezartzen da. Fusiblearen tentsio izendatuari dagokionez ( $V_n$ ), babestu beharreko modulu fotovoltaikoen katearen baldintza estandarretan neurtutako hutseko tentsioa ( $V_{OC,STC}$ ) baino %20 aldiz handiagoa izan behar da:

$$V_n \geq 1,2 \cdot M \cdot V_{OC,STC}$$

Non,

$M$ : kate bat osatzen duten modulu kopurua.

#### 2.9.1.2.4. PLAKA FOTOVOLTAIKOEN INSTALAZIOAREN DISEINUA

Behe tentsioko instalazio sortzaileetan JTO-BT-40a aplikatzen da eta honen aplikazioen gida teknikoan adierazten den bezala ostatuan egingo den instalazio fotovoltaikoa “**C1 motakoa**” da, instalazio sortzaile interkonektatuen artean instalazio hauek behe tentsioko banaketa elektrikoko sarera konektatuta daude, non sare horretara konektatutako behe tentsioko beste zirkuitu eta instalazio batzuk ere existitzen diren. JTO-BT-40ko 13.eskemako konfigurazioa erreferentziatzat hartuz, ostatuaren instalazio sortzailearen konfigurazioaren diseinua egin da (ikusi 4. DOKUMENTUA-PLANOAK-eko IE-16. planoan).

Instalazio sortzailea konmutadore baten bidez ostatuko barne instalaziora konektatuta dago, biak kontagailuen zentraliziotik elikatzen dira eta neurketa-metodo bidirekzionala erabili daiteke, hau da, plaka fotovoltaikoek jasotako energia gehiegizkoa bada (kontsumorik/konektatutako kargarik ez dagoelako edo bateriek energia gehiago metatu ezin dezaketelako), energia sarera bidali eta energia hori saldu daiteke. Halaber, sare/sorgailu konmutadore bat dago ostatuko kargak saretik deskonektatu eta plaka fotovoltaikoetatik eta baterietatik elikatu daitezkeelarik (irlan funtzionatzen), sarean akatsen bat gertatuz gero zerbitzuaren jarraitutasuna bermatuz, ostatuari zerbitzu-minimoak elikatzeko haina energia emanaz. Sare/sorgailu konmutadorea deskonektatzean instalazio fotovoltaikoa neutrora konektatuta egongo da.

Instalazio fotovoltaikoaren barneko konfigurazioari dagokionez, 3.DOKUMENTUA-ERANSKINAK-eko 3.5. atalean egindako kalkuluen arabera diseinatu da, barne instalazioaren kargen kontsumoaren % 30 elikatzeko dimentsionatu delarik (16.000 W). Eranskinetako 3.5.3. azpiatalean adierazi den gisan, sistemaren konexioak, hau da, plaken arteko serie/paralelo konfigurazioa, paraleloan kokatutako 14 moduluz osatutako lerro, kate edo “string” bakarrekoa izango da eta 35°-ko inklinazioa izango dute. Plakekin seriean erreguladore bat jarriko da, plaken eta instalatutako 12 baterien arteko energia-fluxuaren norabidea erabakiz eta azkenik korrante zuzena 400 V-eko korrante alterno bihurtuko duen inbertsore bat egongo da, ostatuko barneko kargak elikatu eta instalazio fotovoltaikoaren sarera konexioa ahalbidetzen duena. Hurrengo irudian adierazitako sistemaren eskema ikus daiteke.



### 2.9.1.2.5. AUKERATUTAKO PLAKA FOTOVOLTAIKOAK

Memoriako 2.9.1.2.3. azpiatalean adierazitako instalazioan jarriko diren plaka fotovoltaikoek izan behar dituzten ezaugarriak eta elikatu nahi den potentzia-eskaria kontuan izanik, "LG NeON 2BiFacial-LG395N2T-A5" plaka fotovoltaiko monokristalinoa jartzea erabaki da (ikusi 3.DOKUMENTUA-ERANSKINAK-eko 3.5.atala). Instalazio termikoko kaptadoreek modulu fotovoltaikoak jartzeko teiltuaren azalera murrizten dute, modulu monokristalinoek nahiz eta garestiagoak izan, efizientzia handiagoa dutenez eta potentzia altuagoak ematen dituztenez, modulu gutxiago erabili beharko dira potentzia bera emateko. Aurreko azpiatalean aipatu den moduan, sistema paraleloan konektatutako 14 moduluz osatuta egongo da, seriean modulu bakar bat dagoelarik eta 35°-ko inklinazioa izango dutelarik. 20. taulan aukeratutako plakaren ezaugarriak ikus daitezke.

20.Taula. LG NeON 2BiFacial -LG395N2T-A5 modulu fotovoltaikoaren ezaugarri nagusiak.

EZAUGARRIAK	UNITATEA	BALIOA	ERRENDIMENDU OSAGARRIA			
			%5	%10	%20	%30
Potentzia maximoa ( $P_{max}$ )	W	395	415	435	474	514
Puntako tentsio maximoa ( $V_{Pmax}$ )	V	41,8	41,8	41,9	41,9	41,9
Lanen ordena zuzendari eta kontratataren artean adostuko da.

### **5.1.7.4. USTEKABEKO EDO EZINBESTEKO ARRAZOIENGATIKO PROIEKTUAREN HANDIKUNTZA**

Ustekabeko arrazoiengatik edo suertatutako edozein istripuren ondorioz proiektuaren handikuntza egitea beharrezkoa denean, ez dira gainontzeko lanak geldituko. Eraberritutako proiektua gauzatzen edo tramitatzen den bitartean, lanean jarraituko da zuzendari teknikoak ezarritako jarraibideak kontuan hartuz.

### **5.1.7.5. EZINBESTEKO ARRAZOIENGATIKO PROIEKTUAREN LUZAPENA**

Ezinbesteko edo nahigabeko arrazoiengatik eraikitzaileak edo instalatzaileak obrak ezarritako epeak bete ezingo balitu, proiektua luzatzeko baimena emango zaio teknikoaren aldeko txostenarekin. Horrenbestez, instalatzaileak teknikoari luzapenaren iraupena eta zergatiaren azalpenak eta arrazoiak biltzen dituen idazki bat egin beharko dio.

### **5.1.7.6. PROIEKTUAREN ATZERAPENAREN ERANTZUNKIZUNA**

Kontratistak ezin izango dio zuzendari teknikoari atzerapenaren erantzunkizuna egotzi, plano faltak direla eta idatziz eskatutako planoen kasuan izan ezik.

### **5.1.7.7. LANEN EXEKUZIOAREN BALDINTZA OROKORRAK**

Proiektuan exekutaturako lan guztiak aldeztatuak izandako aldaketekin eta teknikoak, eraikitzaileak edo instalatzaileak idatziz emandako aginduekin bat etorri behar dira.

### **5.1.7.8. EZKUTUKO OBRAK**

Obrak amaitzean ez tutan geratutako lan guztiak planoetan zehaztu behar dira. Plano horien hiru kopia egingo dira, teknikoarentzako, jabearentzako eta kontratistarentzako bana eta guztiek planoak sinatu behar dituzte.

### **5.1.7.9. FROGA ETA SAIKUNTZEN GASTUAK**

Obran erabilitako material eta elementu guztien froga eta saiakuntzen gastuak kontratistak ordaindu beharko ditu. Modu egokian burutu ez diren edo ziurtasun baxua ematen duten froga eta saiakuntzak errepikatu ahalko dira.

### **5.1.7.10. MATERIALEN ETA GAILUEN JATORRIA**

Proiektuaren zuzendari teknikoari material eta gailu guztien zerrenda eman beharko zaio, horien fabrikatzailearen marka, kalitate, jatorri eta egokitasuna adieraziz. Baldintzen agirian material eta gailu horien jatorria zehazten ez bada, instalatzaileak nahi duen jatorritik lortu ditzake.

### **5.1.7.11. MATERIAL EZ-ERABILGARRIAK**

Instalatzaileak obran sortzen diren eta baliagarriak ez diren hondakinen kokapen eta garraioaren ardura izango du. Baldintzen agirian adierazten bada edo teknikoak agintzen badu material horiek obratik atera edo zabortegira eraman beharko dira.

Obraren ingurua garbi mantentzea instalatzailearen ardura izango da.

### **5.1.8. OBRA AMAIERAKO DOKUMENTAZIOA**

Zuzendari teknikoak jabeari obra amierako dokumentazioa emango dio.

### **5.1.9. GARANTIA-EPEA, BEHIN BETIKO OBREN HARRERA ETA GARANTIA-EPEAREN LUZAPENA**

Obrak 12 hilabeteko garania-epea izango du, epe horretan kontratistak akatsak zuzendu, errefusatutako obrak kendu eta hauek sortutako aberiak konponduko ditu.

Obraren garantia amaitzean, obraren behin betiko harrera egingo da. Harreraren ostean obraren egoera desegokia bada, behin betiko harrera atzeratu eta zuzendari teknikoak instalatzaileari akatsak zuzentzeko beharrezko lanak gauzatzeko epea ezarriko dio.

### **5.1.10. OBRA-KONTRATUAREN DEUSEZTATZEA**

Bezeroak edo jabeak jarraian adierazitako arrazoiengatik sinatutako obra-kontratua deuseztatu dezake:

- Arrazoi zentzudunik eman gabe obraren exekuzioa bertan behera uzteagatik.
- Atzerapen nabarmenaren ondorioz edota exekuzio epeak ez betetzeagatik.
- Kontratistaren gaitasun ezagatik.
- Bestelako arrazoi administratiboengatik.

Obra-kontratua deuseztatzen bada, kontratistak hamar egun izango ditu obratik makinaria, materialak etab. ateratzeko eta beste kontrata batek lan egin ahal izateko moduan utzi beharko du obra.

## **5.2. BALDINTZA EKONOMIKOAK**

### **5.2.1. PREZIO UNITARIOAK**

Proiektuaren instalazioan erabilitako elementu ezberdien prezio unitarioaren kalkulua, kostu zuzen, zeharkako kostuen, gastu orokorren eta etekin industrialaren arteko kostuen batuketarekin egingo da.

- Kostu zuzenak edo exekuzio materialen kostua (PEM):
  - Proiektuan parte hartzen duten langileen eskulana, gizarte-segurantza, karga eta gehigarriak.
  - Segurtasun eta higienarako ekipo teknikoak, eta istripu eta gaixotasunen prebentzio eta babes ekipoak.
  - Materialak.
  - Makinak, energia eta erregaiak.
  - Amortizazio gastuak.
- Zeharkako kostuak:
  - Bulegoak, biltegiak, lantegiak, obrako langileentzako behin behineko pabiloiak, laborategiak, elementuen alokairuak etab.
- Gastu orokorrak:
  - Enpresaren gastu orokorrak, finantzarioak, karga fiskalak eta administrazio tasak. Normalean %13an definitzen dira.
- Etekin industrialak:
  - Kontratistaren etekin industrialak aurreko kostuen %6 da.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa):
  - Aurrekontu totalari %21eko zerga ezarriko zaio.
- Kontrata kostua edo aurrekontu orokorra:
  - Gastu zuzen, zeharkako gastuen, gastu orokorren eta etekin industrialaren batura.

### **5.2.2. ERREKLAMAZIOAK PREZIO IGOERENGATIK**

Kontratistak ez badu kontratua sinatu aurretik aipatutako prezioak erreklamatu, ezin izango ditu aurrekontuan jarritako prezioen igoerak erreklamatu.

### **5.2.3. MATERIAL HORNIKETA**

Kontratistak materialak idatziz eskatuko dizkio jabeari. Behin erosita material horiek jabearenak izango dira, nahiz eta kontratista izan materialaren zaintza eta mantenuaren arduradun.

#### **5.2.4. ORDAINKETAK**

Ordainketak jabetzaren ardura izango dira, aurretik onartutako epeak betez eta horien zenbatekoa kontratatuaren araberakoa izango delarik.

#### **5.2.5. LANGILEEN ERRENDIMENDU BAXUA**

Eraikitzaileak proiektuaren zuzendariari hileroko aurkeztu behar dion obren aktan zuzendariak antzeko obretan onartzen den errendimendu normala baino errendimendu baxuagoa dela ikusten badu, eraikitzaile edo instalatzaileari idatziz jakinaraziko dio, honek, neurri egokiak har ditzan.

Ondoren, jabetzak eraikitzaile edo instalatzaileari dagokion ehunekoa jaisteko eskubidea izango du eta ohikoena jabetzak eskulanen gastua %15 beheratzea izaten da.

#### **5.2.6. OBRAREN ATZERAPENAREN ONDORIOZKO INDEMNIZAZIOA**

Obraren atzerapena ematen bada, kontratistak obraren aseguruia izan beharko du. Kontratutako lanen edo aurrekontu totalaren ehuneko bat ezarriko da, eta atzeratutako eguneko, kargu fidantza baten gehitzen joango da.

#### **5.2.7. OBRAREN ASEGURUA**

Kontratista behartuta dago, obraren behin betiko harrera izan arte, obrak iraundako denbora osoarentzat aseguruia kontratatzea. Seguruaren zenbatekoa aseguraturako elementuen balioen araberakoa izango da.

Istripu edo ezbeharren bat suertatzekotan aseguratuak emandako dirua jabetzari emango zaio matxuratutako atala konpontzeko, jabetzak ezin izango du inoiz diru hori berarentzat gorde edo gastatu.

#### **5.2.8. OBREN MANTENUA**

Kontratistak garantia-epe barruan ez badu obren mantenua modu egoki baten betetzen, zuzendari teknikoak, obren zaintza, garbitasuna eta obren mantenu egokia bermatzeko edozein neurri hartzeko eskubidea izango du, gastuak kontratak ordainduko dituelarik.

#### **5.2.9. KONTRATISTAK JABEAREN ERAIKINAREN EDO ONDASUNEI EMANDAKO ERABILPENA**

Obrak exekutatzen diren bitartean kontratistak eraikina, materiala eta erramintak erabili ahal izango ditu jabearen baimenarekin eta kontratua amaitzean bueltatuko ditu. Horiek kaltetzen badira, horiek konpondu eta horrek dakartzan gastuak kontratistak ordaindu beharko ditu.



### **5.3. BEHE TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAREN EXEKUZIO ETA MUNTAKETARAKO BALDINTZA TEKNIKOAK**

#### **5.3.1. BALDINTZA TEKNIKO OROKORRAK**

Atal honetan instalazioak osatzen dituzten elementu edo ekipo mekaniko, elektriko eta elektronikoek bete beharreko baldintza teknikoak adierazten dira, proiektuaren instalazioen kalitatea bermatuz. Elementu horien ezaugarri eta ezpezifikazio teknikoak proiektuaren MEMORIA dokumentuan adierazi dira.

Material eta ekipo guztiak berriak izango dira eta ezin dira beste proiektu batzuetakoak berrerabili. Instalatzen diren ekipo guztiak fabrikatzailearen marka eta modelo alde batean itsatsita eramango dute eta proiektuan elementuen fabrikatzailea eta modelo ezartzen badira, instalatzailea elementu hori erabiltzera behartuta dago.

Instalazioan erabiliko diren material guztiak lehenengo kalitatekoak izango dira eta behe tentsioko erreglamendu elektroteknikoak eta eraikingintzako kode teknikoak ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte. Horrenbestez, erabilitako elementu eta ekipoek I.mailako isolamendu elektriko minimoa izango dute, korrante zuzeneko eroaleak ez ezik, horiek II.mailako isolamendu minimoa izango baitute, IP65 babes-mailarekin. Kontratatzaileak eskatuz gero material guztiak beharrezko azterketak eta frogak pasatu dituztela egiaztatzeko aukera izango du.

Instalazioaren hornikuntza elektrikoa kalitatezkoa izango da eta diseinatutako instalazio elektrikoak bezeroen segurtasuna, zerbitzu elektrikoaren jarraitutasuna, kalitatea eta fidagarritasuna bermatu behar ditu. Sare elektrikoan akatsik ez eragiteko neurriak eta lanean ari diren langileentzako, nahiz mantentze lanetan dabiltzan langileentzako beharrezko segurtasun-neurriak hartu behar dira. Pertsonen segurtasuna bermatzeko instalazioan gainkarga, zirkuitulabur eta gainkorronteen aurkako babesak jarriko dira.

Proiektuaren exekuzioan jarraitu beharreko legedi eta dokumentuen aipamena:

- ✓ 842/2002 Errege Dekretuaren arabera Behe tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE) eta Jarraibide Tekniko Osagarriak (JTO):
- ✓ Bete beharreko UNE arauak.
- ✓ IEMBT 012 → Industria eta Energiaren Ministerioa – Lotura instalazioak. Babes koadro orokorrak.
- ✓ IBERDROLA konpainia hornitzailearen arau partikularrak, esaterako MT 3.53.01: I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U. enpresa hornitzailearen sarera konektatutako sorkuntza instalazioen baldintza teknikoak ezartzen dituen araua.
- ✓ Eraikingintzaren kode teknikoak (EKT edo gazteleraz CTE): SUA, SI, HS eta HE dokumentuak.
- ✓ Eraikingintzaren norma teknologikoak (ENT edo gazteleraz NTE).

- ✓ ISO 50001:2018 → Energia kudeatzeko sistemak.
- ✓ 226/2014 Errege Dekretua, abenduaren 9koa. Eraikuntzen Efizientzia Energetikoaren ziurtagiria.
- ✓ 661/2007 Errege Dekretua, maiatzaren 25ekoa. Erregimen berezian energia elektrikoaren ekoizpen-ekintzen erregulazioa.
- ✓ 244/2019 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa. Energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratiboan, teknikoan eta ekonomikoan erregulazioa.
- ✓ Eraikuntzetako instalazio termikoen erregulamendua (RITE).
- ✓ IDAE dokumentuak:
  - IDAE. 2010eko ekaina. Madril. "Eficiencia y ahorro energético-Guía técnica. Agua Caliente Sanitaria"
  - IDAE. 2011ko otsaila. Madril. "Eficiencia y ahorro energético-Guía práctica sobre instalaciones individuales de calefacción y agua caliente sanitaria (ACS) en edificios de viviendas"
  - IDAE. 2011ko uztaila. Madril. "Instalaciones de Energía Solar Fotovoltaica. Pliego de Condiciones Técnicas de Instalaciones Conectadas a Red"

### 5.3.1.1. KOADRO ELEKTRIKOAK

Instalatuko diren koadro elektriko guztiak berriak izango dira eta akatsik gabe entregatuko dira. Hauek behe tentsioko erregelamendu elektroteknikoko betebeharrak eta nazioarteko batzorde elektroteknikoaren (NBE) gomendioak jarraituz eraikiko dira.

Koadro elektrikoak zerbitzu elektrikoaren jarraitutasuna bermatu beharko dute, tentsioaren eta maiztasunaren balioak gehienez balio izendatuaren %5 handiagoak izango dira. Koadrotik irtetzen diren zirkuitu guztiak gainkargen eta gainkorronteen aurkako babesa izango dute, horrenbestez, zirkuituek pertsonak kontaktu zuzen eta zeharkako kontaktuen aurka babesteko etengailu diferentzialak izango dituzte.

Koadroak eraikinaren barnealdean kokatzeko diseinatuta egongo dira, eta hautsaren eta hezetetasunaren aurkako babesa izango dute. Hotzean ijeztutako egitura metaliko batez nahiz plastikozko moduluez osatuta egon daitezke. Koadroen atal metalikoak korrosioaren aurka babestuko dira korrosioaren aurkako pintura baten bidez. Hautsa sar ez dadin, koadroen atean neopreno edo antzeko materialez zigilatuta egongo dira. Aparatuak beraien arteko eta alboko elementuen arteko fabrikatzaileak ezarritako distantzia minimoa izango dute, beti ere aparatuaren neurriaren laurdena baino distantzia handiagoa izango delarik.

Koadroen eraikuntza eta diseinua langileen segurtasuna eta zerbitzuaren egoera guztietan, funtzionamendu on bat bermatu behar dute, bereziki:

- Koadroa zerbitzuan dagoen bitartean, eskuragarri dauden elementuek ez dituzte piezak tentsiopean izango.
- Koadroa eta bere osagai guztiak zirkuitulaburreko korronteak jasateko gai izan beharko dira.

### 5.3.1.2. GAININTENTSITATEEN ETA ZIRKUITULABURREN AURKAKO BABESAK

Babes eta aginte koadroa instalazioaren hasieran eta elikadura-puntutik ahalik eta gertuen kokatuko da, non ebaketa omnipolardun etengailu orokor bat eta koadrotik irteten diren gainontzeko zirkuituen gainintentsitateen babeserako gailuak egongo diren. Zirkuitu guztiak suerta daitezkeen gainkorronteen efektuen aurka babestuta egongo dira, zirkuituaren etenaladia garaiz egiteko gai izan behar dira eta aurreikusitako gainkorronteetarako dimentsionatuta egongo dira.

Babes eroaleak izan ezik, zirkuitua osatzen duten eroale guztiak (fasekoak eta neutroa) gainkorronteen aurka babestuta egongo dira eta JTO-BT-22, UNE 20460-4-43 eta UNE 250460-4-473 arauetan adierazitako baldintzak beteko dituzte.

Gainkorronteen kontrako babes tresna gisa, funtzionamendu ezaugarri egokiak dituzten fusibleak eta ebaketa sistema elektromagnetikoa duten etengailu automatikoak onartuko dira

Gainkorronteen aurkako babeserako, etengailu magnetotermikoak baldintzak hauek bete behar ditu:

$$I_b \leq I_n \leq I_z ; I_f \leq 1,45 \cdot I_z$$

Non,

$I_b$ : zirkuituko diseinu korrontea

$I_n$ : babes dispositiboaren korronte izendatua

$I_z$ : babestutako linearen korronte maximo onargarria

$I_f$ : babesaren funtzionamendu efizientea bermatzen duen korrontea

Zirkuitulaburren aurkako babeserako, etengailu magnetotermikoak baldintzak hauek bete behar ditu:

1) Babesaren ebaketa ahalmena  $\geq I_{CCmax}$

2) Etengailu Automatikoaren ( $I^2 \cdot t$ )  $\leq$  eroalearen ( $K^2 \cdot S^2$ )

*\*Zirkuitulaburreko korrontea eroaletik pasatzean sortutako beroketa adiabatikoa dela kontuan hartuz.*

$$3) I_m < I_{CCmin}$$

Non,

$I_{CCmax}$ : linearen hasierako zirkuitulabur korrante maximo onargarria

$(I^2 \cdot t)$ : Etengailu Automatikoaren alderik aldeko energia espezifikoa

$(K^2 \cdot S^2)$ : Eroaleak jasandako energia espezifikoa

$K$ : Eroalearen isolamenduari dagokion konstantea

$S$ : Eroalearen sekzioa

$I_m$ : Etengailu Automatikoaren desarra korrantea

$I_{CCmin}$ : linearen amaierako zirkuitulabur korrante minimoa

### 5.3.1.3. GAINKARGEN AURKAKO BABESAK

Eroale batek jasan dezakeen korrante maximo onargarria, erabilitako babesen bidez bermatuta geratu behar da. Babes orokorra, ebaketa omnipolarreko etengailu automatiko batez edo faseko eroaleak soilik mozten dituen etengailu automatiko batez osatuta egon daiteke.

Gainkargen kontrako babes tresna gisa, ezaugarri egokiak dituzten fusibleak edo kurba termiko egokia duten etengailu automatikoak erabiliko dira.

### 5.3.1.4. ZUZENEKO KONTAKTUEN ETA ZEHARKAKO KONTAKTUEN AURKAKO BABESAK

#### ➤ Zuzeneko kontaktuen aurkako babesa:

Zuzeneko kontaktuen aurkako babesa egokia dela ziurtatzeko, hurrengo neurriak hartu beharko dira (JTO-BT-24, UNE 204604-41 eta UNE 204604-47):

- Instalazioaren atal aktiboak pertsonak normalean dabiltzan lekuetatik urruntzea, gutxienez 2,5 metro gorantz, metro bat beherantz eta beste metro bat alborantz.
- Instalazioko ibilbide eta aparatu elektriko guztiak atal aktiboak eskuragarri gera ez daitezen diseinatuko dira, mekanismo eta zirkuitu guztiak babestuz eta linea elektrikoaren fase aktiboekin egon daitezkeen edozein ustekabeko kontaktuak ekidituz.

- Instalazioaren atal aktiboen estaltzea isolamendu egokiaren bidez. Isolamendu honek bere ezaugarriak denborarekin mantentzeko gai izan beharko du eta kontaktu korrontea 1 mA-ra mugatu behar du. Atal aktiboen isolamendu-babesa, hau ezingo da eliminatu suntsitzen ez bada.

➤ **Zeharkako kontaktuen aurkako babesa:**

Zeharkako kontaktuen aurkako babesa elikaduraren etete automatikoaren bidez egingo da. Akats bat suertatu ondoren balio nabarmen bateko kontaktu-tentsioa denboran zehar mantentzea ekidin beharko du, honek arriskua suposatu baitezake. Beraz, instalazioko ibilbide eta aparatu elektriko guztiak, nahigabe tentsiopean dauden masekin edozein kontaktu ematerakoan pentsonengan min fisiologikoa eragitera heldu dezakeen kontaktudenbora baino gutxiagoko kontaktua egon dadin diseinatuta egongo dira.

Zeharkako kontaktuen aurkako babesak hurrengo klaseetakoak izan daitezke:

A klasea:

Hurrengo sistemetan oinarritzen da:

- Zirkuituen banaketa.
- Tentsio txikien erabilera.
- Atal aktibo eta masa eskuragarrien arteko banaketa babes isolatzaileen bidez.
- Masen estaltzea babes isolamenduekin.
- Konexio ekipotentzialak.

B klasea:

Hurrengo sistemetan oinarritzen da:

- Masen lurrera jartzea eta akats-korronteatatik ebaketa gailuak.
- Masen lurrera jartzea eta akats-tentsioatik ebaketa gailuak.
- Masen neutrora jartzea eta akats-korronteatatik ebaketa gailuak.

Gehienetan A klaseko babes sistemaren aplikazioa ez da posiblea izaten, hala ere, modu mugatuan aplikatu daitezke instalazioaren atal, material edo ekipo batzuetarako soilik.

Hartutako babes-neurriak JTO-BT-24 jarraibidea beteko dute eta UNE 204604-41 arauarekin bat etorriko dira. Horiez gain, elikadura etenagatik babesek UNE 20572-1 jarraitu behar dute eta Erabili den lur-konexioaren eskema kontuan izan behar da (JTO-BT-08).

Masen lurrera jartzea eta akats-korrontearen ebaketa gailuak

Babes sistema hau masen lurrera jartzean oinarritzen da, instalazio akastunaren deskonexioa eragiten duen gailu batekin elkartuta dagoena.

Hurrengo baldintzak betetzea eskatzen da:

- Akats batek sortutako lurrerako korronea ematen denean, ebaketa gailuaren eragite denbora maximoa 5 segundokoa izan behar da.
- Edozein masaren ohiko tentsio-mugak:
  - 24 V argiztapen publikoan eta lokal heze eta bustietan.
  - 50 V gainerako kasuetan.

Instalazio baten masa guztiak lur-konexio berdinerara elkartuta egon behar dira.

Etengailu diferentzialak erabiliko dira zeharkakako kontaktuen babes neurri gisa. Hauek zirkuituaren irekitze automatikoa eragiten dute aparatuaren poloetatik zirkulatzen diren korroneen batuketa bektoriala balio jakin batera heltzen denean. Akats-korronearen balio minimoaren baliotik aurrera, etengailu diferentziala automatikoki irekitzen da eta aparatuaren sentikortasuna zehazten du. Gutxienez babes diferentzial bat instalatutako da bost zirkuituko, JTO-BT-25 jarraibidean ezartzen den moduan.

$$R_a \cdot I_{Dn} \leq U$$

### 5.3.1.5. EROALE ELEKTRIKOAK

Instalazioan erabilitako eroale elektrikoak ez dute 450/750 V-eko tentsio esleitua baino txikiagoa den tentsio esleiturik izango.

➤ **Tentsio izendatua 0,6/1 kV duten eroaleen ezaugarriak:**

- Eroaleak V motako kobre elektrolitoz eginikoak izango dira, UNE-EN 21123-4 arauak ezarritakoa jarraituz.
- Isolatzailea: XLPE sare-polietilenoa. UNE 21123-9-1/1 eta UNE-EN 60754-1:2014 arauetan ezarritakoa jarraituz.
- Sugar ez hedatzaileak UNE-EN 60332-1 arauaren arabera.
- Su ez hedatzaileak UNE-EN 60332-3 arauaren arabera.
- Halogenorik emititzen ez dituenak UNE-EN 60754 arauaren arabera.
- Ke korrosibo igorpen baxukoa UNE-EN 60754-2 arauaren arabera.
- Ke igorpen baxukoa UNE-EN 60754-2 arauaren arabera.

➤ **Tentsio esleitua 450/750 V duten eroaleen ezaugarriak:**

- Halogenorik gabeko material termoplastikoa, ke igorpen txikikoa eta suteen aurrean erresistenteak.
- Eroaleak, V motako kobre elektrolitikoaz eginikoak izango dira, UNE 211002 arauan ezarritakoa jarraituz.

- Sugar ez hedatzaileak UNE-EN 60332-1 [3] arauaren arabera.
- Su ez hedatzaileak UNE-EN 60332-3 [3] arauaren arabera.
- Halogenorik emititzen ez dituenak UNE-EN 60754 [2] arauaren arabera.
- Ke korrosibo igorpen baxukoa UNE-EN 60754-2 [2] arauaren arabera.
- Ke igorpen baxukoa UNE-EN 61034 [10] arauaren arabera.

Instalazioan erabilitako eroaleak:

- **RZ1-K (AS) eroalea:** Sugar ez hedatzailea, 0,6/1 kV-eko tentsio izendatukoa, 5. klaseko kobre eroalearekin (-K), sare polietilenoazko isolamendua (R) eta ke eta gas korrosibo igorpen baxuko poliolefinaz egindako konposatu termoplastikozko estalduraz (Z1) osatua.
- **H07Z1-K (AS) eroalea:** Sugar ez hedatzailea, isolatutako polobakarra 450/750 V-eko tentsio esleitukoa, 5 klaseko kobre eroalearekin (-K), eta ke eta gas korrosibo igorpen baxuko poliolefinaz egindako konposatu termoplastikozko isolamenduz (Z1) osatua.

Instalazioaren ezaugarrien ondorioz eroalearen instalazioa kurbadura zehatz batekin egin behar bada, kurbadura erradioa gutxienez hurrengoa izango da:

- Eroalearen kanpo diametroa < 25 mm bada, 4 aldiz diametroa.
- Eroalearen kanpo diametroa 25-50 mm artekoa bada, 5 aldiz diametroa.
- Eroalearen kanpo diametroa > 50 mm bada, 6 aldiz diametroa.

Erretilu batean kable bat baino gehiago pilatzen direnean, kable bakoitzak bere izendapena adierazten duen errotulu bat eramango du eta izendapen eta beharrezko ezaugarri horiek proiektuan agertzen direnekin bat etorri beharko dira. Errotuluan idatzitako hizkiak edo zenbakiak ezin izango dira ezabatu.

Instalazioko eroaleak modu errazean identifikatu behar dira, bereziki neutroa eta babes-eroalea. Identifikazio hau isolamenduen koloreen bidez egingo da:

- Neutroa: urdin argia.
- Babes eroalea: hori-berdea.
- Fase eroaleak: beltza, marroia eta grisa.

### 5.3.1.6. KANALIZAZIO ELEKTRIKOAK

Eroaleak hodi edo kanalizazioen barruan kokatuko dira, zuzenena horma gainean finkatuta, lurperatuta, estrukturetan sartuta, eraikuntzaren tarteen barruan, erretiluetan... proiektuaren MEMORIA, PLANOAK eta NEURKETAK dokumentuan ezarritakoaren arabera.

Hodiaren kanpoko diametro minimoa, garraiatzen dituen eroale kopuru eta sekzioaren arabera izango da, BTEE-ko JTO-BT-21-ean adierazitakoa kontuan hartuz.

Kanalizazioen ibilbidea, posible den heinean, eraikinaren muga-lerro bertikal eta horizontalekiko paraleloan egingo da. Erregistro jarraituetan, angelu zuzeneko hiru kurba egon daitezke gehienez.

Instalazioa baimentzen den bitartean hodiak lurretik gutxienez 2,20 m-ko altuera batera kokatuko dira, ager daitezkeen akats mekanikoak ekiditeko. Elektroak ez diren beste kanalizazioetara hurbiltzerakoan, bi kanalizazioen kanpoko atalaren artean gutxienez 3 cm-ko distantzia egongo da. Kanalizazio elektrikoak ez dira jarriko hezetasunak, kondentsazioak edo ur emariak sor ditzaketen kanalizazioen azpian. Kanalizazio elektrikoak eta ez-elektroak kanal beretik joan ahal izateko hurrengo baldintzak bete beharko dira:

- Hoditeria elektrikoa behar den moduan babestuta egongo da, beste kanalizazioen hurbiltasunagatik ager daitezkeen arazoak edo arriskuen aurrean. Hurrengo baldintzak izango dira kontuan:
  - Temperatura igoera.
  - Kondentsazioak
  - Uholdeak
  - Korrosioak
  - Leherketak

➤ **Hodipean doazen eroale isolatuak:**

Babes-hodiak horrelakoak izan daitezke:

- Hodi eta osagarri metalikoak.
- Hodi eta osagarri ez-metalikoak.
- Hodi eta osagarri konposatuak (material metaliko eta ez-metalikoz eraikiak).

Hodiak jarraian adierazten diren arauetan ezarritakoaren arabera sailkatzen dira:

- UNE-EN 50.086 -2-1: Hodi zurrunen sistemak.
- UNE-EN 50.086 -2-2: Hodi kurbagarrien sistemak.
- UNE-EN 50.086 -2-3: Hodi malguen sistemak.
- UNE-EN 50.086 -2-4: Lurperatutako hodian sistemak.

Hodiak hormetan edo sabaietan lotuko dira bridetara bidez, bridetara artean egon daitezkeen distantzia maximoa 0,8 m-koa izanik. Finkapen euskarriak kokatuko dira norabide aldaketan bi aldeetan eta ekipoen edo kutxa elektrikoetatik oso hurbil dauden hodi zatietan. Horma barruan edo lur azpian instalatutako hodiekin ez dute aurrekoa bete behar.



### **5.3.1.7. HARGAILUAK**

Hargailuak kanalizazioetara konektatu daitezke zuzenean edo eroale mugikor batez. Nolanahi ere, aparatuaren sarrerako eroaleak material isolatzaileez egindako gailu egokien bidez babestuta egongo dira trakzioaren, bihurduraren, ebakiduraren, urraduraren, gehiegizko tolesketaren eta beste arriskuen kontra. Ez da baimenduko eroaleak korapilatzea edo hargailura lotzea. Beroa sortzen duten hargailuetan, elikadura-eroalea ukitu dezaketen atalak 85 °C-ra ailegatzen badira, eroalearen kanpoko inguratzailea ez da material termoplastikozkoa izango.

### **5.3.1.8. ARGIKUNTZA HARGAILUAK**

Luminariak UNE-EN 60598 arauan eta eraikingintzako kode teknikoan ezarritako betebeharrak beteko dituzte. Esekitutako luminarien masa ezin du 5 kg-ko masa gainditu, gainera, debekatuta dago luminarien armadurak esekitzea haietara korronea daramaten eroaleak erabiliz. Armadurak sabaiei lotuta joango dira torlojuen edo antzeko sistemen bidez. Beste esekitze sistema bat erabiltzen bada, sendoa eta armaduratik isolatuta egon beharko da. II edo III klasekoak ez diren luminarien atal metalikoak lurrera konektatu beharko dira babes eroalearen bidez.

### **5.3.1.9. LARRIALDI ARGIKUNTZA**

Instalatuko den larrialdi argikuntzak, 28 JTO-BT jarraibidea jarraituko du. Hargailu finkoak eta autonomoak izango dira, ohiko argikuntzan hutsegite bat gertatzean edo tentsio nominalaren %70 baino tentsio txikiagoa detektatzean jarriko dira funtzionamenduan. Zorutik 1 metroko altueraraino 0,5 lux-eko argiztapen minimoa egin behar da, gainera, zoru-mailan eta pasabide nagusien ardatzean, 1 lux-eko argiztapen minimoa egon behar da. Suteen aurkako babesen instalazioetan eta argiteriabanaketa koadroetan 5 lux-eko argiztapen minimoa egon behar da. Argiztapen maximo eta minimoaren arteko erlazioa 40 baino txikiagoa izango da.

Proiektu honen PLANOAK dokumentuan larrialdi argikuntzaren kokapen puntuak ikus daitezke. Orokorrean, langile espezializatuak urtean behin luminariak ikuskatuko ditu, konexio eta pieza guztien egoera mekanikoa aztertuz.

### **5.3.1.10. MOTOR HARGAILUAK**

Motorrak mugimenduan dauden atalekin istripuak ez gertatzeko moduan instalatuko dira. Ezin dira erraz su hartzen duten materialekin kontaktuan egon eta jarraian adierazitako segurtasun distantziak gordeko dituzte:

- 0,5 metro, motorraren potentzia 1 kW edo txikiagoa bada.
- 1 metro, motorraren potentzia 1 kW baino handiagoa bada.

Motorraren berezko abioa tentsioaren berrezarpenaren ondorio bezala, istripu bat eragin edo motorra kaltetu dezakeenean, elikaduraren ebaketa automatikoko gailu baten bidez emotorrak tentsio faltaren kontrako babes sistema bat izango du.

Motorren eroaleek motor bakarra elikatzen dutenean, motorra karga-osoan dagoenean xurgatutako korrontearen %125-eko korrontearentzat dimentsionatu behar dira. Hainbat motor elikatzen badituzte, potentzia handieneko motorraren karga-osoko korrontearen % 125-eko tentsio minimoa eta gainontzeko motorren karga-osoko intentsitatearen batura jasateko dimentsionatu beharko dira. Gainera, fase guztiak gainkorronteen eta gainkargen aurka babestuta egon behar dira.

Motorrak tentsio-falta baten aurrean elikadura ebaketa automatikoa ahalbidetzen duen gailu batez babestuta egon beharko dira, tentsioa itzultzearen ondorioz motorraren bat-bateko abioak eragin ditzakeen istripuak eragotziz, UNE 20460-4-45 araua betez.

Orokorrean, 0,75 kW baino potentzia handiagoko motorrak abio erreostatotez edo gailu baliokideez hornituta egon beharko dira, abio eta martxan jartzearen korronteen artelko erlazioa karga-osoan xurgatzen duena baino handiagoa izatea ekidinez. Korronte horien arteko erlazioa balioak ezaugarri-xaflan adierazten dira:

- 0,75 kW-etik 1,50 kW-era: 4,5
- 1,50 kW-etik 5 kW-era: 3,0
- 5 kW-etik 15 kW-era: 2,0
- 15 kW-etik aurrera: 1,5

5 kW baino potentzia handiagoko motorrek sei konexio borna izango dituzte, harilkatuaren triangelu konexioaren sareko tentsioari dagokiona (230/400 V-eko motorra faseen artean 230 V-eko tentsioa duten sarearentzat eta 400/695 V-ekoa faseen artean 400 V duten sarearentzat), modu horretan izar-triangelu abioa ahalbidetzen da.

Motorren ezaugarri-xaflan honako ezaugarriak agertu behar dira:

- Motorraren potentzia.
- Errotazio abiadura.
- Lan-tentsio edo tentsioen korronte intentsitatea.
- Abio-korrontea.
- Lan-tentsioa/k.
- Fabrikatzailearen izena eta modeloa.

### **5.3.1.11. MATERIAL OSAGARRIAK**

Instalazio elektrikoaren material osagarria bezala erabiltzen diren torlojuak, zirrindolak, azkoinak, etab., altzairu herdoilgaitzekoak izango dira. PVC-zko hodi babesle guztiak poliuretanoarekin edo produktu baliokide batekin zigilatuta egongo dira

### **5.3.1.12. HARTUNEAK ETA ETENGAILUAK**

Etengailuak UNE-EN 60669-1 arauan ezarritakoaren arabekoak izango dira eta hartuneak UNE 20315-1-1 eta UNE 20315-1-2 arauetan ezarritakoaren arabekoak.

Mekanismo hauen lotura torlojuen bidezkoa izango da beti, ezingo da erabili beste motako sistemarik. Mekanismoak horma barruan sartuta instalatu behar direnean, babes plakak perimetro osoan ondo finkatuta geratzen direla ziurtatu behar da. Instalazioa bukatzean, mekanismo hauen babes plaken ertzak lurrarekiko paralelo egon beharko dira. Etengailu eta sakagailu moduko eragingailuak instalatzerako orduan, plano bertikalean goitik beherako mugimendu bat burutuz itxiko da zirkuitua. Toki edo puntu berdinean mekanismo bat baino gehiago daudenean, babes plaka berdinarean barruan instalatuko dira. Mekanismoak tentsio maila desberdina dutenean, hauek babestuko dituzten kutzak horma zati batez bananduak izango dira. Polo kopurua edozein izanda ere, hartune guztiek lurrera-jartze borna izango dute.

Instalatutako hargune monofasiko zein trifasikoak homologatutako modeloak izango dira eta lurrera jartzeko konexio borneak izango dituzte, bere intentsitatea hargailuaren arabera zehaztuko delarik. Hartuneak hermetikoak izango dira eta erregimen iraunkorren fabrikatzaileagatik ezarritako korrante esleitua jasan beharko dute.

## **5.3.2. IBILGAILU ELEKTRIKOEN KARGA-GUNEAK**

JTO-BT-52-an ezarri bezala, karga-guneak erabilera publikora bideratuta dauden legez, hartune eta konektoreak lurzorurekiko 0,6 m-ko altuera minimo batera egon behar baitira eta izan dezaketen altuera maximoa 1,2 m-koa delarik.

Karga-guneen hornikuntza kanpoaldetik doanean eroaleen tentsio-esleitua 0,6/1kV-ekoa, eta gutxienez 2,5 mm<sup>2</sup>-ko sekzioko kobrezko eroaleak izango dira, gure kasuan 10 mm<sup>2</sup>-ko sekziokoak izango dira. Karga-gunearen hornikuntza-zirkuituak babes eroale bat eramango du beti eta instalazio orokorrak lur hartunea izango du.

Kanpoko karga-gunea denez, postu edo gune bakoitzak lurrera jartze borne bat izango du eta edozein zirkuitutan jatorritik karga-puntura egongo den tentsio jauskera maximo onargarria ez da % 5 baino altuagoa izango.

Babes dispositibo diferentzialak A klasekoak izango dira eta hondar-korrante diferentzial maximoa 30 mA-koa izango da.

Instalazioaren lurrera jartzea instalazioaren bizi-zikloan zehar lurrera-jartze erresistentzia maximoa instalazioaren metalezko atal eskuragarrietan 24 V baino altuagoak diren kontaktu-tentsiorik ez sortzeko egingo da. Karga-gune bakoitzak lurrera-jartze borne bat izango du, instalazioaren lurrera-jartze zirkuitu orokorrera konektatuta.

Elektrodoak elkartzen dituzten lur-sarearen eroaleak holakoak izan daitezke:

1. Biluziak, kobrezkoak, lur-sarearen parte badira 35 mm<sup>2</sup>-ko sekzio minimoa izango dute eta elikapen eroaleen kanalizazioetatik kanpo joango dira.
2. 450/750 V-eko tentsio izendatua duten eroalez isolatuak, berde-hori koloreko estaldurarekin, kobrezko eroaleekin eta 16 mm<sup>2</sup>-ko sekzio minimoarekin.

Ostatuan erabiliko den babes eroalea, eroale polobakar isolatua izango da, 450/750 V-etako tentsio izendatuarekin, berde-hori koloreko estaldurarekin eta 16 mm<sup>2</sup>-ko sekzio minimoarekin.

Lur-zirkuitu guztien konexioak behin-betiko kontaktua eta korrosioaren aurkako babesa bermatzen duten terminal, grapa, soldadura edo elementu egokiak izango dituzte.

### 5.3.3. INSTALAZIO TERMOSOLARRA

Instalazio termosolarra osatzen duten elementuek jarraian adierazitako araudira egokitu beharko dira:

- Eraikingintzako kode teknikoa (EKT)
- Eraikuntzetako instalazio termikoen erreglamendua (RITE)
- Beharrezko UNE arauak.
- 226/2014 Errege Dekretua, abenduaren 9koa. Eraikuntzen Efizientzia Energetikoaren ziurtagiria.
- IDAE dokumentuak:
  - IDAE. 2009ko urtarrila. Madril. "Instalaciones de energía solar térmica. Pliego de Condiciones Técnicas de Instalaciones a Baja Temperatura"
  - IDAE. 2010eko ekaina. Madril. "Eficiencia y ahorro energético-Guía técnica. Agua Caliente Sanitaria"
  - IDAE. 2011ko otsaila. Madril. "Eficiencia y ahorro energético-Guía práctica sobre instalaciones individuales de calefacción y agua caliente sanitaria"

MEMORIA dokumentuan instalazio termosolarraren kalkulu eta elementuen ezaugarri teknikoak adierazten dira.

### **5.3.3.1. EGUZKI-KAPTADOREAK**

Aukeratutako eguzki-kaptadorea indarrean dagoen legediaren arabera, material eskudun den erakundeak emandako ziurtagiria izan beharko du. Horrez gain, egindako saiakuntza eta frogen ziurtagiriak izan beharko ditu.

Instalazioa osatzen duten kaptadoreak modelo berdinekoak izatea gomendatzen da, baldintza energetiko nahiz konstruktiboengatik.

Kaptadoreek izan beharreko orientazio eta inklinazioak legedian ezarritakoaren arabera izango dira.

### **5.3.3.2. KAPTADOREEN KONEXIOA**

Kaptadoreek ahal den heinean elementu kopuru berdinez osatutako lerroetan kokatuko dira. Lerro horiek elkarren artean seriean, paraleloan edo serie/paraleloan konektatu daitezke. EUBaren kasuan, seriean konektatu daitezkeen kaptadore kopurua eraikingintzako kode teknikoak ezartzen du.

### **5.3.3.3. KAPTADOREEN EUSKARRIAK**

Sistemak kanpoaldean kokatutako esturktura bateko euskarriak baditu, hauen fabrikatzaileak jasan dezakeen haizearen abiadura eta elur-karga adierazi beharko ditu.

Euskarrien diseinu eta eraikuntzak beharrezko dilatazio termikoak ahalbidetuko ditu, kaptadoreak nahiz zirkuitu hidraulikoa kaltetu dezaketen kargarik transmititu gabe.

### **5.3.3.4. METAKETA SISTEMA**

Etxeko urarekin kontaktuan dauden metagailuen atalak UNE-EN 12897-an ezarritakoa bete beharko dute. Ahal bada metagailuak posizio bertikalean eta barrualdean kokatuko dira. Metagailua etzeko ur beroaren banaketa-sarera konektatuta egotekotan, bezeroak ikus dezakeen tokian termometro bat jarriko da. Sistema metagailuaren tenperatura 60°C-tik 70°C-tara igotzeko gai izan beharko da legionelosisa sahiestu ahal izateko, RD 865/2003, uztailak 4-ean ezartzen den bezala.

EUB aplikazioetan, sistema osagarria eta eguzki-sistemaren arteko konexioa egon beharko da, legionelaren prebentzioaren neurriak bete ahal izateko.

### **5.3.3.5. ENERGIA OSAGARRIAREN SISTEMA**

Eskaera termikoaren hornikuntza jarraia emateko, eguzki-energiako instalazioek energia osagarriko sistema bat izan beharko dute. Honen dimentsionatzea aplikazioaren arabera egingo da, beharrezkoa denean soilik funtzionatuz eguzki-kaptadoreetatik jasotako energia ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Energia osagarriaren sistema elektrikoa denean, kaptatzaileen metro karratuko 300 W baino potentzia txikiagokoa izango da eta 5 m<sup>2</sup> baino instalazio txikiagokozat 1.500 W-ekoa izan daiteke.

### **5.3.3.6. KONTROL-SISTEMA**

Kontrol-sistemek instalazioen funtzionamendu egokia bermatuko dute, jasotako eguzki-energiaren aprobetxamendu ona eta energia osagarriaren erabilera egokia ziurtatuz. Erregulazio eta kontrol-sistemak honako elementuak ditu:

- Zirkuitu primario eta sekundarioaren kontrola.
- Instalazioaren gainberoketen, hozketen etabarren babes eta segurasun sistemak.

## **5.3.4. INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA**

### **5.3.4.1. MODULU FOTOVOLTAIKOAK**

Erabiliko diren modulu fotovoltaiko guztiek honako arauak bete beharko dituzte.

- Eraikingintzako kode teknikoa (EKT)
- Beharrezko UNE arauak (UNE-EN 61730, UNE-EN 50380 eta UNE-EN 61215 besteak beste).
- 226/2014 Errege Dekretua, abenduaren 9koa. Eraikuntzen Efizientzia Energetikoaren ziurtagiria.
- IDAE dokumentuak:
  - IDAE. 2011ko uztaila. Madril. "Instalaciones de Energía Solar Fotovoltaica. Pliego de Condiciones Técnicas de Instalaciones Conectadas a Red"

Moduluen saiakuntzak baimendutako laborategi baten bidez egiaztatuta egongo dira eta ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko da.

Modulu fotovoltaikoen garantia minimoa 10 urtekoa eta errendimendu garantia 25 urtekoa izango dira

Erabiliko diren modulu fotovoltaiko guztiak berdinak izatea saitukoda eta guztietan modeloa eta fabrikatzailearen izena edo logotipoa adierazita egongo da, era berean, seriezenbakia ikusteko moduan eta ezabaezina izango da.

Modulu guztiek ondoren zerrendatzen diren ezaugarri teknikoak izango dituzte:

- Moduluek itzal partzialen aurka eta zeluletan gerta daitezkeen akatsen kontrako deribazio edo blokeo diodoak izan behar dituzte eta IP65 babes-maila izango dute.
- Inguruko markoa eizatekotan, aluminiozkoa edota altzairu herdoilgaitzezkoa izango da.
- Modulu fotovoltaiko bat onargarria izan dadin, bere potentzia maximoa eta neurketa baldintza estandarretan neurtutako zirkuitulabur korrante erreala, fabrikatzaileak adierazitako balio izendatuarekiko %  $\pm 3$  tartearen barruan egon beharko da.
- Moduluen egitura eta atal metalikoak lurrera konektatuko dira.
- Babes arrazoiengatik eta mantentze lanak errazteko helburuarekin, deskonexioa gauzatzeko beharrezko elementuak (fusibleak, etengailuak etab.) instalatuko dira.
- Enpresa ekoizleak ezarritako berme minimoa 10 urtekoa izango da, errendimendu bermea 25 urtekoa izango delarik eta fabrikazio-akatsak dituzten modulu fotovoltaikoak baztertu egingo dira.

#### **5.3.4.2. EUSKARRIAK**

Moduluak eusteko egiturak edo euskarriak, Eraikuntzaren Kode Teknikoan jasota dauden egituren segurtasunari buruzko eskakizunak bete beharko dute. Egituraren materiala aluminioa edo altzairu herdoilgaitza izango da. Modulu fotovoltaikoak egiturei lotzeko torloju herdoilgaitzak erabiliko dira. Egitura lurrera konektatuko da panel fotovoltaikoaren babeseke eroalea erabiliz. Behin instalazioa amaituta dagoela, panel fotovoltaikoak kokatuta daudela, klimak eragin ditzakeen gainkargak, bereziki haizea, jasateko ahalmena izango du.

Egiturak fabrikatzerakoan modulu fotovoltaikoaren orientazio eta inklinazio angeluarentzat diseinatuko dira, muntaketa eta desmuntaketa eta elementuen ordezkapena errazteko. Era berean, modularrak izango dira hauen tamaina mugatzeko, manipulazioa errazteko. Moduluei eusteko topeak eta egiturak ez dute moduluetan itzalik sortuko.

#### **5.3.4.3. BATERIAK**

Baterien muntaketa egiteko ondorengo kontuan hartu beharko da:

- Bateriak muntatu aurretik akatsik ez dutela egiaztatu behar da.
- Torloju bidezko loturak 14,7 Nm eta 19,6 Nm bitartean egon behar dira.
- Instalazio bertikala gomendatzen da.
- Baterien artean gutxienez 1 cm-ko tarte egon behar da.
- Iturri beroetatik urrun kokatuko dira.
- Konexioak egin aurretik terminalak garbituko dira.
- Instalatzen diren bitartean kargak deskonektatuta egon beha dira.

- Bateriak polaritate egokiarekin konektatu behar dira, baterietan polo bakoitza identifikatuta egongo da.
- Eroale negatiboa konektatzen azkena izango da.
- Baterien terminaletan babes isolamendua erabiliko da.
- Instalatuko diren bateria guztiak etxe, mota, ahalmen eta karga bera izan behar dute.
- Bateriak instalatuko diren gela aireztapen ona izan behar du eta lehor egon behar da. Ahal den heinean gelaren aireztapena naturala izango da. Baterien instalazioa egiterako kontuan hartu behar da ondoren egin beharreko mantentzeak modu erraz batean egiteko diseinua izatea.

#### 5.3.4.4. INBERTSOREA

Sarrerako potentzia aldakorra izateko aukera izango dute, ahal den heinean modulu fotovoltaikoek eman dezakeen potentzia maximoa lortzea ahalbidetuko duen Potentzia Maximoko Puntuaren (MPPT)jar raitzailea erabiliko du eta sare elektrikoarekin interkonexioa gauzatzeko (sinkronizatzeko) egokiak izango dira.

Bihurgailuen ezaugarri elektrikoak honako hauek izango dira:

- Sare elektrikora energia bidaliko du nahiz eta eguzki-irradiantzia izendatua (Neurketa Baldintza Estandarretan  $\rightarrow 1.000 \text{ W/m}^2$  eta  $25 \text{ }^\circ\text{C}$ ) baino % 10 aldiz handiagoa izan. Horrez gain, 10 s-ko tartean % 30eko puntako balioak jasateko gai izango da.
- Potentziaren errendimendua ( $P_{\text{irteera}}/P_{\text{sarrera}}$ ) korrante altxatzen den irteera potentzia izendatuaren % 50 eta % 100 bitartean egongo da eta gutxienez efizientzia % 92 eta % 94 bitartekoa izango da.
- Geldiune edo "Stand-by" egoeran dauden ekipoen autokontsumoa, gau-moduan daudenen irteerako potentzia izendatuaren % 2 izango da gehienez.
- Potentzia izendatuaren % 25 eta % 100 bitartean, hornitutako energiaren potentzia faktorea 0,95 baino handiagoa izango da.

Erabilitako inbertsoreak segurtasuna bermatzeko behar diren babes guztiak barneratuko ditu, hots, gaintentsio, gainkarga, zirkuitulabur, ihes korronteen eta sareko perturbazioen aurkako babesak izango dute. Horrez gain, gailu hauek Segurtasun Elektrikoari eta Bateragarritasun Elektromagnetikoari buruzko Europako zuzentarauak bete beharko dituzte. Gainera, 2004ko abenduaren 15eko Batzordeko eta Europako Parlamentuko 2004/108/CE Zuzentaraua bete behar du.

Inbertsoreak gutxienez, eskuzko kontrol hauek izan behar ditu:

- Bihurgailuaren pizte eta amatatze orokorra.
- Korrante alternoko sare nagusira konexioa eta deskonexioa.



Bihurgailu guztien masa guztiak lurrera konektatuta egongo dira lur konexio baten bidez kontaktu tentsioak ekiditeko.

Instalazio fotovoltaikoetan instalatuko diren inbertsoreek, ekoizleak ziurtatuko gutxienez 3 urteko bermea izango dute.

#### **5.3.4.5. ERREGULADOREA**

Erreguladorea gai izan behar da sorgailu linearen korrante gainkarga eta kontsumo linearen korrante gainkarga aldi berean jasateko.

Kontsumo lineako korrantea sorgailuaren zirkuitulabur korrantea baino % 25 handiagoa izan behar da eta lineako korrantea karga maximoko korrantea baino % 25 gehiago izan behar da. Egunero karga erreguladorearen autokontsumorako erabilitako energia-galderak, eguneko kontsumoaren % 3 baino txikiagoak izan behar dira.

#### **5.3.4.6. KABLEAK**

Panel talde bakoitzaren positibo eta negatiboak bananduta eramango dira eta indarrean dagoen araudiaren arabera babestuta egongo dira.

Eroaleak kobrezkoak izango dira eta tentsio-jauskerak eta beroketak saihesteko sekzio egokia izango dute. Zehazki, edozein lan-baldintzatarako, eroaleek sekzio nahikoa izan behar dute tentsio-jauskera % 1,5 baino txikiagoa izan dadin.

Kableak beharrezko luzera izan beharko dute elementu desberdinetan esfortzuak ez sortzeko eta pertsonen igarotze arruntetik lotura aukerarik ez egoteko.

Korrante zuzeneko kable guztiak egokiak izango dira bere erabilera atari zabalean, airean edo lur azpian izateko, UNE 21123 arauaren arabera.

#### **5.3.4.7. SARE-KONEXIOA**

100 kW-rainoko instalazio guztiak, behe tentsioko sarera konektatutako instalazio fotovoltaikoen konexioaz hitz egiten duen 1663/2000 Errege Dekretuko 8 eta 9. artikuluetan adierazitakoa beteko dute.

Energiaren metaketa sistema bat izatekotan, sorgailu batek eduki beharreko babes funtzio berdinak izango ditu. Babesak metaketa sistemarenak edota sorgailuarenak partekatua izan daitezke. Akats bategatik gertatutako deskonexioa suertatuz gero, akatsa tentsio balioak ezarritako tarteen barruan 3 minutu egon bada soilik konektatu ahal izango da sorgailua.

#### **5.3.4.8. NEURKETAK**

Instalazio guztiek abuztuaren 24ko 1110/2007 Errege Dekretua beteko dute, sistema elektrikoaren neurketa puntuen Bateratutako Erregelamendua onartzen duena.

#### **5.3.4.9. BABESAK**

Instalazio guztiak behe tentsioko sarera konektatutako instalazio fotovoltaioken babesei buruz hitz egiten duen 1663/2000 Errege Dekretuko 11. Artikuluan adierazitakoa beteko dute. Sare trifasikoko konexioetan, maiztasun maximo eta minimorako (51 Hz eta 49 Hz) eta tentsio maximo eta minimorako ( $1,1 \cdot U_m$  eta  $9,85 \cdot U_m$ ) interkonexiorako babesak fase bakoitzerako izango dira.

#### **5.3.4.10. INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAREN LURRERA JARTZEA**

Instalazio guztiak sarera konektatutako instalazio fotovoltaioken lurrera jartzeko baldintzei buruz hitz egiten duen 1663/2000 Errege Dekretuan adierazitakoa beteko dute. Instalazio fotovoltaiokoaren masa guztiak, bai korronte zuzeneko atalekoak bai alternokoak, lur bakarrera konektatuta egongo dira. Lur hau enpresa banatzailearen neutroko independentea izango da, Behe Tentsioko Erregelamenduaren arabera.

#### **5.3.4.11. HARMONIKOAK ETA BATERAGARRITASUN ELEKTROMAGNETIKOAK**

Instalazio guztiak behe tentsioko sarera konektatutako instalazio fotovoltaioken harmonikoei eta bateragarritasun elektromagnetikoari buruz hitz egiten duen 1663/2000 Errege Dekretuan adierazitakoa beteko dute.

#### **5.3.4.12. SEGURTASUN-NEURRIAK**

Instalazio fotovoltaiokoak, konektatutako sarearen tentsioko independenteki, instalazioko barneko akats bat edo sareko akats bat egotekotan, bere deskonexioa bermatzen duen babes sistema bat izango dute, konektatuta dauden sarren funtzionamendu egokia ez perturbatzeko moduan, bai egoera normalean bai akatsaren zehar. Instalazio fotovoltaiokoak beharrezko baliabideak izan behar dituzte banaketa sareko berrengaiatze bat onartzeko kalteak sortu gabe. Halaber, ez dute sortuko beste ekipoetan kalteak eragin ditzaketen gaintentsiorik. Instalaturako ekipoak bateragarritasun elektromagnetikoko arau nazional eta internazionaletan adierazitako perturbazioko mugak bete behar izango dituzte.

## 5.4. LUR JARTZEA

Lurrera jartze instalazioak pertsonen zein animalien babeserako egiten diren instalazioak dira, masa bat tentsiopean jarritz gero inor kaltetuta gerta ez dadin. Masak lurrera jartzen dira lur elektrodoak erabiliz, eta erresistentzia baxuko bidea osatzen dute akats-korrontearen zirkulaziorako. Horrela, edonork tentsiopean dagoen masa ukitzen badu, korrontea erresistentzia baxuagoko elektrodotik lurrera bideratuko da eta ez da bere baitatik pasako.

### 5.4.1. LUR JARTZE LOTURAK

#### ➤ Lur-harguneak

Elektrodo moduan erabilitako kobre eroaleen eraikuntza eta erresistentzia elektrikoa UNE 21.022 arauaren II. klasearen arabekoak izango dira. Lur-harguneen lurperatze-mota eta sakonera, lurzoruaren hezetasunengatik galera posibleak, izotzaren edo beste efektu klimatikoen presentzia eta aurreikusitako lur-hargunearen erresistentziaren balioa baino handiagoa ez izatea kontuan hartu behar da. Sakonera ez da inoiz 0,5 m baino txikiagoa izango.

Segurtasun arrazoiengatik ez dira erabiliko lur-hargune gisa gainontzeko zerbitzuen kanalizazio metalikoak (ura, likidoak edo gas sukoiak, berokuntza nagusia...).

#### ➤ Lur-eroaleak

Lur-jartze puntuak babes eroaleekin lotzen dituzten eroaleak dira. Hauen sekzioak 18 JTO-BT jarraibideko 2. taularen arabera definitzen dira. Sekzioa ezin da babes eroaleentzat exijitutako minimoa baino txikiagoa izan.

#### ➤ Lur-jartze bornak

Lur jartze instalazio guztietan lurreko borne nagusi bat aurreikusi behar da eta horrekin bat hurrengo eroaleak elkartu behar dira:

- Lur-eroaleak.
- Babes eroaleak.
- Lotura ekipotentzial nagusiko eroaleak.
- Lur jartze funtzionalerako eroaleak, beharrezkoak badira.

#### ➤ Babes eroaleak

Babes eroaleak linea bakoitzarekin doazen lur eroaleak dira. Hauek instalazio bateko masak lurreko bornearekin elektrikoki lotzeko balio dute, zeharkako kontaktuen aurkako babesa ziurtatuz. Babes eroaleen sekzioak JTO-BT-18 jarraibideko 2.taularen arabera definitzen dira.

## 5.5. HARRERAK EDO INSPEKZIOAK ETA FROGAK

Instalatzaileak instalazioaren bezeroari erabilera-eskuliburua, material eta gailuen horniketaren informazioa eta instalazioaren mantentze-lanak eta espezifikazioak biltzen dituen dokumentua emango dio. Instalazioaren martxan-jartzearen aurretik, erabilitako ekipo guztiak fabrikari funtzionamendu saiakuntza eta froga ezberdinak pasatu beharko dituzte, akats mekaniko eta elektrikorik ez dutela bermatzeko eta kalitate ziurtagiriak egiaztatuz.

Gutxienez hurrengo konprobaketak egingo dira:

- Isolatzailearen erresistentzia neurtuko da fase-eroale bakoitzaren eta lurraren artean megóhmetro baten bidez 1 eta 2 minutuko tartean 500V-eko korrante zuzena aplikatuz ( $R_{\text{isolatzaile}} = \frac{R_{\text{neurketa}} \cdot L}{1.000}$ ). Gutxienez 0,5 M $\Omega$ -eko erresistentzia izan beharko du.
